



- **Behobia-Donostia** Zerk jartzen ditu korrika 30.000 lagun?
- **Carles Belda** «Glosadoreak bihurtu dira iraultzaren bozeramale Balearretan»
- **Josu Erkoreka** «PSO Eren oraingo ikurra estatu federala da, ikur hutsa da»
- **Aitor Montes**, medikua «Osasun arreta kalitatezkoa izatekotan, gaixoaren hizkuntzan behar du ezinbestean»



Azaroak 9

Katalanen oihua munduari

argia 2015eko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

Historia gaiak

Txistea

Hitzokeiak

Esaldi esanguratsuak

Bertsoak

Etixerako gomendioak

Zientzia

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Argiako eskaintza bereziak



EGURREZKO TAULA hormakoa

50€

EGUTEGIA opari

argia egutegia 2015

argia

EGURREZKO TAULA mahai gainekoa

50€

EGUTEGIA opari

argia egutegia 2015

argia

EGUTEGIA

9€

argia egutegia 2015

argia

BURNIZKO EUSKARRIA

5€

ESKAERAK

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

© 943 37 15 45



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko azaroaren 9a, 2.436. zenbakia

ASTEKO GAIA

BEHOBIA-DONOSTIA Korrika egitea pasio.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

CARLES BELDA: «Tradizioa ez da leku bat, bide bat baizik».

SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Gerrako lubakiak berreskuratzeko.

LIDE HERNANDO / 15

IRITZIAREN LEIHOA

SOLECZNIKI ETA LITUANIAKO GUTXIENGO POLONIARRA

ASIER BLAS MENDOZA / 16

BADUGU ZER IKUSI ETA ZER IKASI IÑAKI ANTIGUEDAD / 18
EZ NAU IZUTZEN (BIZITZAKO) NEGU HURBILAK...

IÑAKI MENDIGUREN / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Bulnerabilitatea. KATTALIN MINER / 18

ZIRTA Zilbor, besteak. JOXERRA GARZIA / 20

ERDIKO KAIERA

MIKEL MARTINEZ: «Antzerkirako sormen prozesuan garrantzitsua izanik ere, ahaztuena da testua».

MYRIAM GARZIA / 22

ARTEFACTORY Horma-irudien bidez, kalea eraldatzen.

MYRIAM GARZIA / 24

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 26

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 28

ALEA Begiekin usaintzekoak.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 29

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 30

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 31

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 32

TERMOMETROA

AZAROAK 9, KONTSULTA KATALUNIAN

● **NURIA BOSCH I ROCA:** «Independentziaren kostua, Espainiako jarreraren arabera izango da».

ARITZ GALARRAGA / 33

● **Debekuen gainetik soberanismoa bozkatzera doa.**

XABIER LETONA / 36

JOSU ERKOREKA: «Zer nahi dugun bezain garrantzitsua da nola lortu nahi dugun esatea». MIKEL ASURMENDI / 38

JON PELI URIGUEN: «Parte-hartzeak ekarriko du aberastasunaren banaketa». ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 42

AITOR MONTES LASARTE, FAMILIA MEDIKUA: «Gakoa historia klinikoa euskaraz lortzea da, herritarrek eskatzea».

AMAIA UGALDE BEGOÑA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Doran Güres hil da, Turkiako kurdien zantzailea. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Korrika egitea pasio

Korrikalariz bete dira kaleak, eta seinale garbia da hori: bertan da Behobia-Donostia.

Lasterketa arrakastatsuak alde onak eta txarrak ditu, baina datuek gero eta gizarte sedentarioagoa garela dioten garaiotan, kirolera gerturatzeko eta korri egitera animatzeko akuilu paregabea denik ezin ukatu.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

“ZERGATIK EGITEN DUT KORRIKA? Zergatik sortzen dit menpekotasuna lehiak? Ez dakit, uste dut ez dagoela arrazoirik. Aitzakiatzat esan nezake nekatutakoan endorfinak igotzen sentitu nahi ditudala, lasterketa bat irabazteak edo paisaia ederrak ikusteak sortzen didan emozioa sentitzeko beharra daukadala. Esan nezake eragiten didan ongizateagatik egiten dudala korrika, osasunagatik edo arazoetatik deskonektatu ahal izateko. Ez, uste dut gustatzen zaidalako baino ez dudala korri egiten, instant bakoitzaz gozatzen dut eta ez dut zergatian pentsatu beharrik”. Kilian Jornet puntako lasterkari katalanaren hitzak dira, *Córrer o morir* liburutik hartuak. Sentsazio horien bila, ugari dira zapatilak jantzi eta asfalta edo mendialdera arineketan iriten direnak.

Haatik, euskal herritarren erdia baino gehiago sedentarioa dela erakusten dute datuek. Esaterako, Osasunaren Mundu Erakundeak zehazten duen gutxieneko jarduera fisikora ere ez da iristen EAEko biztanleen %31: OMEk gomendatzen du astean 150 minutuko jarduera fisiko arina egitea, eta herrialde askotan 75

Osasunaren Mundu Erakundeak zehazten duen gutxieneko jarduera fisikora ere ez da iristen EAEko biztanleen %31

minutura jaitsi du eskaera (hots, astean ordu eta laurden), jendea oso sedentarioa dela ikusita. Obesitateak gora egin du haurren artean, eta elikadura desorekatuarekin batera bizimodu ez aktiboak zeresan handia du horretan. “Aisialdi pasiboa gero eta handiagoa da eta gero eta eskurago dago, oso sartua daukagu gure bizi-moduan”, ohartarazi digu Jose Manuel Gonzale

lez Aramendi kirol medikuak. Kezkatuta daude adituak, joera arriskutsua izan baitaiteke bizi-estilo pasiboa orokortzea.

Horren aurrean, korri egitea irtenbide aproposa bilakatu da hainbatentzat. Kirol merkea da, baliabiderik apenas eskatzen duena, bakarrik nahiz konpain

nian egin daitekeena, edonon eta edozein ordutan. Azken finean, osasuntsu egoteko aktibo mantenduko gaituen plan bat egitea aholkatzen dute medikuek, izan korrika izan bestelako jarduera edo ariketa fisikoa, errealistak diren helburuak ezarri, urratsez urrats. Gontzal Grandes medikuaren arabera, bizikalitatea hondatzen diguten edo hiltzen gaituzten gaixotasun nagusien kausa bizimodu ohiturak dira, hein handi batean: “Elikadura desgokiak, jarduera fisiko ezak eta tabakoaren eta alkoholaren kontsumoak eragiten dituzte EAEn urtero ditugun kasik 20.000 heriotzetatik 10.000 inguru. Egunero ordu erdiko jarduera fisikoa eginez, modu orekatuan janez, ez errez eta alkohola neurrian edanez, heriotzen %50 saihestuko genuke, baita gaixotasun kroniko ohikoenen %80 ere (bihotzekoak, sistema kardiobaskularrari dagozkionak, diabetesa, minbizia...). Zifra ikaragarriak dira, ez dago halako inpaktu potentziala duen beste ezer”.

30.000 korrikalari aterako dira aurtengo Behobian. Masifikatuegia dagoela kexu dira hainbat, baina filosofia eta maila guztietako jendea biltzeko aukera ematen du horrek.





Rosa Luena

«Emakume oso gutxi ginen eta lotsa ematen zigun. Orain berdin zait nola noan jantzita edo polito korritzen dudana»

ERRETZEARI utzi ziolako hasi zen Rosa Luena korri egiten, 1989an. Aspalditik Berriozarren bizi den 48 urteko andoaindarrari gustatu egin zitzaion, federatzea erabaki zuen eta Andoaingo Zumeatarra klubean dabil ordutik. “Hasieran abentura bat zen, ez nuen nire burua kirolari gisa ondo ezagutzen, gero entrenatzailearen esanetara erronkak jartzen hasi nintzen, markak lortzera ateratzen, eta urteekin erritmoa jaisten joan naiz; orain sentazio onen bila ateratzen naiz, disfrutatzen. Gainera, urte hasieratik alaba bat dugu eta horrek ere aldatu egin ditu gauzak...”.

Luenari sekulako lasaitasuna ematen dio korri egiteak, umore txarra askatzeko modua da eta bakarrik ateratzen denetan, pentsatzeko aukera ona da. Korri egiteari esker jendea ezagutu eta lagunak egin dituela gaineratu digu. Berriozarren adibidez, talde bat elkartzen da astean bitan korri egitera irteteko; hasieran sei lagun ziren eta gaur egun hogeitik gora. “Eta Iruñean, Gaztelu enparantzan 40 korrikalari inguru elkartzen dira entrenatzeko, lasterketa bat dirudi!”. Hastapenak, ordea, bestela gogoratzen ditu, Andoainen: “Etiketetik oinez ateratzen nintzen eta auzotik irten arte, Leitzarnera iritsi arte, ez nintzen korrika hasten. Emakume oso gutxi ginen garai hartan korrika eta lotsa ematen zigun. Gaur egun berdin zait, baita zer daramadan jantzita ere, polita den edo ez, eroso izatea da garrantzitsua, eta berdin zait polito korritzen dudana edo ez, baina hasieran... Behobia-Donostia egin nuenean jarri nituen lehenengoz galtza motzak, entrenamenduetan galtza luzeekin ateratzen nintzen. Nik uste hori gaudituta dagoela, espero dut, emakume gehiago ikusten da gaur egun korri egiten, nahiz eta gizonezkoak baino gutxiago.



Berriozarren talde bat elkartzen da astean bitan korri egitera irteteko; hasieran sei lagun ziren eta gaur egun hogeitik gora.

Denboragatik agian, familiako kontuak gure gain hartzen ditugulako oraindik ere”.

Lagun batekin batera egin zuen lehenengo Behobia, 1989an bertan, eta oso esperientzia ona izan zuen. Aurtengoa, egiten duen 26. aldia izango da, oraindik ere Zumeatarrak klubeko lagunekin. Urte hauetan guztietan, denetariko eguratsak egokitu zaizkio eta abiapuntuan beti Irungo taberna berera joaten direnez, tabernariak ezagutu egiten ditu dagoeneko. “Lehen prestatu eta marka egitea ateratzen nintzen, orain gustura egitea da asmoa, jai giroan, nahiz eta nire burua zirikatzen jarraitzen dudana eta ahal dudana ongien egiten saiatzen naizen”. Lasterketa berezia dela dio, batez ere publikoagatik: “Mundu guztia ateratzen da kalera animatzera eta izugarria da nola inplikatzaren diren. Ibilbideko gune jakinetan musika ere jartzen digute zaletu batzuek...”. Luenaren gomendioa, txikitatik ariketa fisikoaren kultura barneratzea haurrek: “Asteburuetan seme-alabak mendira eramanez adibidez, edo beti autoa hartu beharrean lekuetara paseatzen joanaz”.

Lasterketa elitistak vs. herrikoiak

Osasunagatik, edo eguneroko kezketatik aldentzeko, edo argaldu nahian, indarra hartu asmoz, sofari iskin egiteko helburuz... hasten da korri egiten jendea, eta zaletasuna sortzen zaio sarri. Hainbatetan, ordea, obsesio ere bilakatzen da eta dena ematera ateratzen dira batzuk lasterketan, mendi-martxetan edo triatloi probetan. Markak gaudituta buruan, substantzia energetiko susmagarriak zabaldua daude giro jakinetan, maila amateurrean aritu arren. Ohiko moduan, neurrian aritzea da gakoa, muturretar

jo gabe, lehia sana motibazioa izan baitaiteke ariketa fisikoa egiten jarraitzeko.

Zentzu horretan, lasterketak eta lasterketak daude. Batzuetara aurkezteko badirudi kasik profesionala izan behar duzula, parte hartzen dutenen maila altua delako eta zure burua jokoan kanpo sentitu dezakezulako. Baina astebururo ez bada hileroko lasterketaren bat dugun herri honetan —negozio bilakatu direla kritikatzeko dute batzuek—, bestelako ereduak ere baditugu: Lilatoiak esaterako, emakume asko lehen aldiz lasterketen mundura hurbiltzeko eta, areago,

Antxon Ubiria

«Gizarte lokartua nahi dute, mugituko ez den eta arazorik sortuko ez duen jendea, sofán botata»

ANTXON UBIRIA 1987 inguruan hasi zen korrika, argaltzeko asmoz. Urte berean, Behobia-Donostia egin zuen anaia zaharra-ekin; “3.000 bat lagun aterako ginen orduan”. Irundarrak 47 urte ditu eta gero eta gutxiago aritzen da korrika, “gero eta gehiago kostatzen delako, batez ere entrena-tu osteko errekupeazioa egiten zait gogorra; minak, juaunikoteak... Urteek ez dute barkatzen, baina Behobia da nire motibazioa eta erronka horrek bultzatuta egiten dut korri. Urte osoan zehar aritzeko balio dit, pixka bat baldin bada ere”. Izan ere, desafioa jarri dio Ubiriak bere buruari: 1992az geroztik 22 Behobia egin ditu jarraian, aurten 23.a egingo du eta “kaskezurrean sartuta daukat jarraian 25 egitea”. Gero geroakoak.

Helburua argi du hala ere: ondo iristea, gehiegi sufritu gabe eta gozatzen. “Ez dugu adinik ez fisikorik eta ez gogorik ez-dakit-zer-nolako marka egiteko. Batzuek markari begiratzen diote eta esaten didate, ‘aurten ez dut Behobia egingo, ez dudalako lortuko halako markatik jaistea’, eta nire baitan barre egiten dut, irabazlea bakarria delako, gainerako guztiok zer egin behar dugu, parte ez hartu? Kirol sana da helburua, erlojuarekin erotu gabe”. Gehienak ondo prestatuta ateratzen direla uste du, baina hainbatetan ezusteko desatseginak izan direla ere gogoratu du, sarri erronkak eta apustuak tarteko, ea nor lehenago iritsiko. “Jende asko

25 Behobia jarraian egitea du erronka Ubiriak, gozatuz. “Ez dugu adinik ez gogorik ez-dakit-zer-nolako marka egiteko. Kirol sana da helburua”.



ez da ohartzen Behobia lasterketa gogorra dela, Irungo Nafarroa etorbidea, Gaintxurizketako aldapa, Lezoko gora-beherak, Mirakruzeko gaina... Ezin du edozeinek egin”.

Datuen arabera gizarte sedentarioa garelako jarri diogu hizpide. “Galdera da, sedentarioak gara ala sedentario egin gaituzte? Hainbeste WhatsApp eta hainbeste telebista... Azkenean gizarte lokartua nahi dute boteretsuek, mugituko ez den eta arazorik sortuko ez duen jendea, sofán botata geldituko dena”.

Azaroaren 9an behintzat, 30.000 lagunetik gora ez dira sofán geratuko eta urtero moduan, bere herrian hasten den korrikaldia errepikatuko du Ubiriak. Anekdota ugari ditu irundarrak. “Duela bost bat urte, ibilbidearen bukaera aldera nekatuta ikusiko ninduten eta ‘aupa Antxon!’ entzuten nuen etengabe; ni harrituta, baina nolatan ezagutzen nau jendeak?... Helmugara iristean konturatu nintzen urte hartan hasi zirela dortsalean korrikalarion izena jartzen”. Urteko egunik politena da Ubiriarentzat, festa handi bat. “Egoera onean bukatu, dutxatu eta hogeitik gora lagun elkartzten gara ederki bazkaltzera. Gaur egun, bazkariko bakarria naiz Behobian ateratzen jarraitzen duena. Ilobak dio hurrengo urtean bera ere aterako dela eta ziur naiz ondo egingo duela; nik aholku bakarria eman diot: erlojuarekin ez erotzeko eta disfrutatzeko, Behobia jai erraldoi bat delako”.

korri egiten hastera animatzeko balio du oraindik ere. Triatloi familiarak ere egiten dira, Txakurkrosak, eta, nola ez, urte amaierako San Silbestre ezagunak. Nahiz eta zenbait herrikako San Silbestreen izaera elitistagoa izan, Urte Zaharra festa giroan (eta maiz moztortuta) agurtzeko korrikaldia da leku asko eta askotan.

Zerk bihurtzen duen lasterketa bat herrikoi? Bada, xehetasunak zaintzeak, parte hartu nahi duen oro eroso sentitu dadin. Distantzia funtsezkoa da adibidez, eta horregatik proba berean distantzia

Zerk bihurtzen du lasterketa bat herrikoi? Parte hartu nahi duen oro eroso sentitzeak. Distantzia ezberdinak egiteko aukera ematen da gero eta proba gehiagotan, adibidez

ezberdinak egiteko aukera ematen dute gero eta antolatzaile gehiagok, norberak egokien datorkion alternatiba aukera dezan. Ibilbidearen gogortasun eta malgutasun mailak ere eragina dauka, jakina, eta amaieran sariak banatzeko hartzen diren irizpideak (egindako denboraren arabera edo zozketa bidez, esaterako). Txipik gabe (hots, denbora markarik neurtu gabe) egunean zehar edozein unetan hasi eta bukatzeko aukera ematen duen lasterketarik ere bada, bakoitza bere erritmora eta bere helburuekin aritu dadin.

Kristina Fernandez

«Lasterketa aitzakia da zerbait ezberdina egiteko, korri egiten jarraitzeko motibazioa»

KRISTINA FERNANDEZ Iruñekoa da, 38 urte ditu eta beti egin du kirola; aerobic eta step-eko monitore izana da, garai batean. Igeri egitera ere joaten zen, baina seme-alabak izan dituenetik gero eta asti gutxiago duela dio (2007an izan zuen lehena, 2013an hirugarrena) eta denboraren ikuspegitik kirol aproposa izaki aukeratu du korri egitea, “txandala eta zapatilak jantzi eta kalera”; horregatik, eta senarrak animatu zuelako (korri egiten du hark ere). “Azkenean biziki zaletu naiz”.

Joan den abenduan ekin zion korri egiteari Fernandezek. “Hasieran lotsa pixka bat ematen zidan bakarrik ateratzea, ez dakit zergatik, inoiz ez nuen kalean korri egin eta apur bat barregarri sentitzen nintzen, nahiz eta tontakeria dela jakin, eta lagun batekin batera joaten nintzen. Gero bakarrik ateratzen ere hasi naiz, lagunekin ordutegiak koordinatzea zaila baita”. Gero eta jende



gehiago ikusten du lasterka Iruñean, “eta gero eta emakume gehiago, gazte nahiz heldu. Pozgarria da”. Mendian gora eta behera arineketan aritzea ere gustuko du, “asfaltoan baino askoz gehiago. Gogorragoa da, baina askoz ere politagoa eta entrenigarriagoa”. Korri egiteak hobeto egoteko balio dio iruindarrari, ongi sentiarazten duelako, fisikoki eta psikologikoki. “Une batzuetan sufritu egiten duzu, baina gero asebeteta geratzen zara”.

Hamar hilabete daramatza korrika, astero bizpahiru egunez, eta dagoeneko Iruñeko erdi maratonia, Txantreako krosean eta mendiko hiru lasterketetan hartu du parte. Behobian estreinatzea ere erabaki du, “urteko proba” delako. “Lasterketa motibazioa da entrenatzeko eta korri egiten jarraitzeko, zerbait ezberdina egiteko aitzakia, baina ez diot markari begiratzen, gustura aritzea eta disfrutatzea da nire helburua”.

Euskal Herrian, lasterketa herrikoirik bada Behobia-Donostia dugu hori, parte-hartzeari dagokionez behintzat. Masifikatuegia dagoela kexu dira korrikalari batzuk, baina filosofia eta maila guztietako jendea biltzeko aukera ere ematen du horrek. “Niri jendeak esan izan dit, ‘Behobian oso lasai ateratzen naiz txarra izanda, hainbeste jende ateratzen da nire abiaduran, babestuta noala’. Beste edozein proba herrikoiara zoaz eta lasterketa erdian bakarrik joateko arriskua daukazu,

edo erratz-autoa atzean duzula, edo pasa ahala zinta kentzen ari zaizkizu... Baina Behobian, hainbeste jende dagoenez, beti zaude korrikalariz inguratuta, bakoitzak bere karrera egiteko aukera du eta uneoro babestuta sentitzeko aukera, atentzioa eman gabe”, kontatu digu Dorleta Ugalde kirol adituak (Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaritzan dihardu). Atzeko pelotoia mantentzea lortzen duten lasterketek erraztu egiten baitute edonork parte hartu ahal izatea.



Lete
itzulpenak
egokitzapenak

administrazioa • publizitatea
filmak • liburuak • enpresa

Tel.: 943 515 346
Webgunea: www.lete.net • E-Posta: lete@lete.net



Janari
tradizionalean
espezializatua

Jatetxea
Taberna

© 943 429 875
Fermín Calbetón, 3
20003 Donostia



Oihan Manzisidor

«Kirola egiteko aukera gehiago eskaini beharko lirateke»



GUTXIENEZ 16 urte izatea beharrezkoa da Behobia-Donostian parte hartu ahal izateko. Oihan Manzisidor oiartzuarrak aurtan bete ditu 16, eta lasterketan aterako da estreinakoz. “Iaz San Silbestrea eta Txingudi Korrika egin genituen eta aurtan hiru lagunaren artean jarri dugun erronka Behobia egitea da”. Marka egitera joango da Manzisidor eta badaki lasterketa berezia izango dela. “Kanpotik ikusi dut orain arte, animatzera joan naizenero ikusgarria iruditu zait zenbat jende hartzen duen parte, publikoak nola animatzen duen, dagoen afizioa...”.

Gustura amaituz gero, hurrengo urtean ere errepikatuko duela dio, auskalo, lehenasuna arraunak baitu. Arrauna da oiartzuarraren benetako pasioa. Hondarribiko Arraun Elkartean dabil eta arraunerako entrenamenduetan egiten du korri. Kirol osagarritzat du beraz, baina pozik egiten du, ikasketez ahaztu eta haizea hartzeko balio dio gainera. Gazteen artean jardun fisikoa gehiago bultzatu beharko ote litzatekeen galdetu diogu eta inguruan bizi duena kontatu digu berak: “Oiartzunen behintzat jende gutxi hartzen du serio kirola. Aukera gehiago eskaini beharko lirateke, nahiz eta horretan ari diren orain herrian”.

Behobia-Donostia prestatzeko aitzakian, arratsaldetan edota asteburuetan korri egitera ateratzen diren herritar taldeak sortu dira leku ugaritan, afizioa urte osoan zehar mantenduz. Era berean, emakumeak korrikara zaletzeko tresna izan da Behobia. Emakundek bideraturiko diru-laguntzei esker, eskualdeka emakume taldeak sortu zituzten, entrenatzaile baten gidaritzapean lasterketa prestatzeko. “Zarauzkoa da arrakastatsuen eta 80-100 emakume inguruk eman zuten izena, adin guztietakoak, inoiz korritu gabeko 100 emakume! Gaur egun, maila guztietako emakumeak dituzte korrika eta Behobiako helburua askogatik gainditu dute, lasterketa herrikoi pila batean hartzen dute parte”, azaldu du Ugaldek.

Emakume nahiz gizon, 20 kilometroko lasterketa gipuzkoarrak jende andana bilduko du 50. urteurrenean: 30.000 lagun ariko dira korrika (horietatik 40 inguru ezinduek: itsuak, buruko gaitzen bat dutenak, gorputz adarren bateko arazoa dutenak...), 221 patinetan, 18 *hand-bike* direlakoetan eta 3 gurgildun aulkian. 4.400 metroko Behobia Gaztea ere prestatu dute ordu erdi lehenago eta aurreko egunean, haurrei zuzenduriko Behobia Txikia egingo da (2.800 partaide). Izan ere, lasterketan parte hartuko duten askok Haruki Murakami idazle japoniarraren antzera bizi dute korri egitea: “Ekintza hori nire bizimoduan integratzen joan zen, zati bat gehiago bihurtzeraino, eguneko hiru jatorduak, loa, lana edo etxeko beharren moduan”. Eta Kilian Jorneten liburuarekin abiatu dugunez erreportajea, Murakamiren *What I talk about when I talk about running* liburuko hitzekin emango diogu amaiera: “Garrantzitsuen da denboraren aurka ez lehiatzea. Ziurrenik, aurrerantzean niretzat zentzu askoz handiagoa izango du jakiteak zenbat gozatuko dudun kilometro horiek korrituta. Segur aski, zenbakitan adierazten ez diren gauzak baloratzen eta horiez disfrutatzen hasi beharko dut”. ■



Bakailoa

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

«Tradizioa ez da leku bat, bide bat baizik»

Eta bueltak amari.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Soinu txikia deskubrimendu handia izan zen?

Orain hogeita bi urte, kasualitatez, ene herriko selaurua hustean, altzari itxurako tresna eder batek liluratu ninduen. Zer erosten nuen jakin gabe eraman nuen etxera. Kuriositate handia nuen “altzari” horrekiko. Akordeoia jotzen zuen aitatzirengana joan nintzen ikasteko intentzioz. Soinua eskuetan hartu, hatzekin harat-honat batzuk egin, eta “hau ez duk marxan” eman zidan epaia. Soinu handia jotzen bazuen ere, ez zuen soinu txikiaren berri. Hala, nire kabuz ikertu nuen, frogak eginez, botoi bakoitzak zer hots ateratzen zuen aztertuz, eta Bartzelonan soinu txiki eskola bat kausitu nuenako, nire plantilla sortua nuen. 18 urtera arte pianoaz eta klasikoaz gainez egin nuen, baina ez nuen ene burua musikari ontzat, gozatzeko oren anitz sartu behar ziren, eta 18 urterekin oren horiek musika ez bertze edozer gauzeta-rako nituen. Soinu txikiari esker lotu nintzen berriz musikari, berak erakutsi zidan musikaz gozatzeko bide berri bat.

Zergatik sailkatzen da ia beti soinu txikia musika tradizionalan?

Irlandan tresna berari bi izen ezberdinez deitzen diote musikaren arabera. Arrabita biolina “biolin” da klasikoak jotzean eta “fidel” musika herrikoari dagokiolarik. Musikak dakar tresnaren izena, errepertorioak jotzeko manera, baina beti da tresna bera. Hori hala, bi mundu dira errealitatea eta kritikari edo etiketa sortzaileena. Jendeak askoz naturalago, galdera eta sailkatze gutxiagorekin, bizi du musika. Ostatuan edo plazan jotzen ari zarelarik etiketa guztiak lainoetan gelditzen dira, lurrean dena nahasten den bitartean. Ulertzen dut kazetariak edo dendetako arduradunek musika etiketatu eta sailkatu behar izatea, baina plazan mementoko xedea betetzen baduzu fini dira etiketak, sailkapenak eta istorioak. Dantzatzea, kanta-

tzea, gozatzeta, zure arima eta animoa zabal-tzea... Hori da garrantzitsua. Hori lortzeko soinu tresna bat da, tresna bat besterik ez. Pianoa, gitarra, trikitia... Ez dago tresna sakraturik, noiznahi desagertu daitezke, ordezkatuak izan, berriz agertu. Adibidez, ez baduzu soinu txiki-rik dantza emateko, baina eskuekin mahai gainean joz eta kantatuz giroa sortzeko gai bazara, jendeak dantzatuko du. Enetzat, musikaria koadrilako sukaldaria da. Gero jakina izan zaitzkeela hiru izarreko sukaldaria, lagunartean ausartzen dena, etxean justu-justu moldatzen dena...

Edo sukaldean aritzea baino harrikoa egitea nahiago duena.

Ni saiatzen naiz nire maila kontrolatzen, non nagoen eta nor naizen argi izaten. Adinarekin zure nortasuna eta baliabideak hobeki ezagutzen dituzu, eta lortu beharrekoa argi izanik, errazagoa da dena. Berriz ere koadrilako sukaldariarena: hozkailuan zer dagoen so egin, mahaiko panorama aztertu, norbere abilezia eta mugen jakitun izan, eta ahal bezain otordu goxoa prestatu. Hori da ene filosofia. Gero musika txirrindularitza bezala da: badira espezialistak kronoetan, mendian gora, klasikoetan, itzuli handietan... eta badira Indurain edo Merckx bezalakoak, dena ongi egiteko gai dire-

NORTASUN AGIRIA

Carles Belda. 1972an Sabadellen (Katalunia) sortua. Akordeoi diatonikoa eta trikitia jotzen artista, Balt Segat, Pomada, Ensaladilla so insistent, Mesclat eta El Belda i el conjunt badabadoc taldeetan aritu da besteak beste. Musikaria ez ezik glosadorea ere bada, eta Zugarramurdin bizi den arren, astebururo zapaltzen ditu Kataluniako oholtzak.



CARLES BELDA

nak, baina horiek esku bateko hatzekin kontatzen dituzu. Horregatik, bertze guztiok neurtu behar dugu zertan garen trebe, eta hori ongi neurtzen asmatuta zoriontsuak izanen gara.

Zertan zara trebe?

Buruz burukoan, harreman zuzenean. Ez naiz AHT bat, ez naiz fite jotzeko kapable, beraz ene espresibitatea beste alde batetik bideratu behar dut, emekiago joz, nota bakoitza xurgatu eta doinuari trankilki zukua ateraz. Gustatzen zait bertze artistak laguntzea, maite dut ene lekuan egotea. Trankil sentitu eta ongi bizitzeko garatzen ditut horiek oro. Bakoitzak bere izaera ezagututa soilik bete dezake bere lekua jendartean. Hori lortuta trankilago zaude, zoriontsuago, eta ondorioz, inguruari hori dena transmititzen diozu. Horregatik saiatzen naiz pertsona eta pertsonaia bereizten. Banitatea biziki lanjerosa da. Famak ere mailak badi-tu, baina karrikan norbait “zu ez dakit nor zara...” esaka etortzean sentimendu berezi eta kudeagaitza sortzen da. Ene neurritik gora gertatu zaidanean, beti egin dut gauza bera: etxera joan, kafea hartu, bizikletan ibili, pentsatu, eta ikasi, ikasi eta ikasi. Geroztik urtero hartzen ditut bi hilabete bakantza ene buruari zinezko galderak egiteko, pertsonaia pausatu eta pertsona lantzeko.

Banitatearen saretik eskapatzeko, laguntzen dizu Zugarramurdi bizi eta zure fazeta artistikoa gehienbat Katalunian agertzeak?

Jakina. Zugarramurdi franko berezia da. Puntu kosmopolita bat badu, denetarik atzeman dezakezu, hizkuntza andana normal-normal entzun, mendia bertan dago baina itsasoa ikusten da, jendea aski irekia da... Zure nortasuna garatzeko aski interesgarria da hori, lasaiago bizi zara. Hala, hemen egonik, hango ene zatiarekiko trankilago naiz. Adibidez, ohartu naiz orain bi-hiru urte arte izan genuen bertsio taldean ez nituela kantatu batzuk joko han izan banintz. Kanpotik ikusita errazagoa da zure kultura

onartzea, argiago ikusten duzu zure kultura zein den. Ez diote alferrik lurra ilargitik ikusten dela ongien. Politikoki, kulturalki zein sozialki katalanok ezaugarri ezinbestekoa dugu: guretzat norbanakoa sakratua da, ez dago deus norbanakoaren gainetik. Hori konprenitzea biziki zaila da Euskal Herrian. Hemen, Jaungoikoa, aberria, sozialismoa, alderdia koadrila, Athletic... Beti bada zerbait norbanakoaren gainetik. Gu anarkistak gara. Norbanakoa lehenestean oinarritzen da gure antolakuntza espiritual. Biziki inportantea da hori orain Katalunian gertatzen ari dena konprenitzeko.

Nola bizi dituzu azken hilabeteak?

Championseko partida batean gaude. Futbol gau handi eta estuetako azken minutuetako tentsioa nabari da. Edonoiz edozer gerta litekeela dirudi, baina jendearen jarrera itzela da. Jendea kontent dago, irribarrez. Xantza handia da odolik gabeko gerla batean egotea. Horrek, alta, ez du erran nahi gerla betean ez gaudenik. Horregatik dago hainbesteko tentsioa. Hori bai, tentsioa Madrilekikoa da, ez gure artekoa. Nik ama espainola dut baina ez dauka inolako arazorik. Madrilekin, ordea, sokatiran gabil-tza, eta ederki dakigu gogor tiratuta soilik hautsiko dugula soka. Horregatik diot oraingo jarrera dela independentzia. Oso garrantzitsua izan zen Guardiola Barçan zegoela kutsatu zuen “irabazteko lan egin behar da” filosofia. Txorakeria dirudi, baina askorengan errotu den jarrera da. Hala, irabazi nahi dugunez lanean gabil-tza, batzuk atez ateko inkestak eginez, besteak manifak antolatuz, Piqué Diada eguneko bere semearen argazkia Twitter-era igoz... Lo ginen eta ernatu gara. Argi izan behar dugu Madril eta Paris beti izanen ditugula aurka. Horregatik elkar ezagutu behar dugu, nor garen eta zer izan nahi dugun elkarrekin gogoetatu eta landu. Orain arte ez genekien gaztelerazko elebakar independentistak bazirenik ere. Orain agertu dira. Goazen bada elkarrekin hitz egin eta bidea urratzera.



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Katalunian ere kulturaren etorkizuna etorkizun politikoari lotua dago?

Independentzia da gure kultura salbatzeko manera bakarra. Ez dago bertzerik. Estatuak, administrazioa, etsaiak dira. Horiekin hautsita baizik ez gara gure artean antolatzen eta gure gisara ibiltzen hasiko. Adibidez, guk erabakiko dugu zer egin Katalunian entzun daitezkeen berrehun hizkuntzekin. Madril eta Parisen jite kolonialak ez digu balio. Zer gertatzen da katalanarekin? Ados, okzitaniera edo euskara baino hobeki dago, baina beheiti doa: beheiti, beheiti eta beheiti, desagertu arte. Nola frenatuko duzu desagertze prozesua desagerrarazi nahi zaituenaren menean egonik? Ezinezkoa da. Horregatik, politikoki askatu ezean ez gara antzina aterako.

Zein da artistaren papera askapen politikoaren bidean?

Bakoitzak dauka bere armen araberako rola. Guk mikroa eta agertokia profitatu behar ditugu. Nola? Konplexurik gabe garena agertuz, katalanez trankilki mintzatuz, eta gure izaeraren parte bihurtu ditugunak zabaldu eta kutsatuz. Hala, hizkuntza mantentzea sekulako arma da metroka-metroka lur berriak konkistatzeko. Izan ere, ez-ezagutzatik dator beldurra, harremanik ez izatetik. Katalunian denetik dago eta harremanen bidez mugak haustea da gure alioia lotzeko manera bakarra. Institutuan ondolan esertzen zitzaidana falangista hutsa zen. Nola sortu harremana? Azkenean, bakoitza bere bandoan, baina errespetuak sortu zuen. Gauza bera familian. 60 urtez Sabadellen bizi izandako amaxi madrildarrari beti erraten nion irriz “ni zu bezalakoa naiz, baina bertze bandokoa”. Harremanaren bidez ikasten da sentimenduak konprenitzen.

Glosadorea mintzo da hor.

Ni gozatzeko hasi nintzen glosan, jostetan, harritzen ninduen plazera zen. Pentsa, lehenago ezagutu nituen hemengo bertsoak Katalu-



niako glosa baino. Lagun talde bat ikertzen hasi ginen, informazioa partekatzen, gurea egin eta zabaltzeko bertze bide bat zela ohartu ginen arte. Ez da ahantzi behar geografikoki zein kulturalki, adar ezberdineko enbor bat zaretela zuek eta irlatxo zositako artxipelago bat garela gu. Artxipelago horretan barna zoriontsuak izan eta gure barne-garbiketa sozialki manera konpartituan egiteko tresna ederra da glosa. Anitzek isilpean duten kezka boz-gora kantatu-

Azaroaren 7tik 16ra

NOAUA! REN KULTURALDIA 2014

Noaua! bordaberri 3 USURBIL 943360321 elkartea@noaua.com

AZAROAK 7 OSTIRALA
PIANO BAT BERTSOTAN GUREKIN AGESTU NAHI?
22:00 - Sutegin
Sarrerak Usurbilen: 7€ (Aldez aurretik 6€ Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauan). Bazkideek 4€tan Noauan aldez aurretik.

AZAROAK 8 LARUNBATA
EMAK BAKIA FILMA
19:30 - Sutegin
Sarrerak Usurbilen: 7€ (Aldez aurretik 6€ Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauan). Bazkideek 3€tan Noauan aldez aurretik.

AZAROAK 9 IGANDA
PETTL-REN KONTZERTUA
19:00 - Sutegin
Sarrera Usurbilen: 10€ (Aldez aurretik 9€ Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauan). Bazkideek 7€tan Noauan aldez aurretik.

NOAUA! REN KULTURALDIA BONUS
25€



AZKEN HITZA

Klima

“Euskal Herrian Kantauriko tempoa nagusitzen da, orain marea goiti, orain marea beheiti. Katalunian, aldiz, Mediterraneokoa, sekula ez goiti eta ez beheiti, laku bat hemendik ikusita. Eguraldiak ere anitz eragiten du. Ez da harritzekoa eguraldi gris eta lanbrotsuarekin hard-corea hainbertze errotzea hemen, eta Kataluniako eguzkiak reggae eta rumba nahiago izatea”.

rik trankilago gelditzen da jendea, eta jendearen ahots bihurtzen gaitu horrek. Horregatik gabiltza han-hemenka gelditzen ziren suak berriz konektatzen, su handi bat sortzeko baino, zirkulazio handiagoa ahalbidetzeko. Erraterako, harrigarria da Mallorcan eta Balear uharteetan gertatzen ari dena. Alimaleko arazoak daude gobernuarekin, jendea kexu da, eta glosadoreak bihurtu dira iraultzaren bozemaile. Herriz herri dabilta egurrean, bardoak eginda daude, eta gobernuak ezin ditu soportatu. Gartxoten istorioa da orain Mallorcan gertatzen ari dena.

Tradiziotik jasoa norbere filtrotik pasaz gaurkotea da gakoa?

Leku ezberdinetan tradizio ezberdinak daude eta badira inongo tradiziorik gabeko tokiak. Hala, buruz buru aritzeko jarrera hartu dugu tradiziotik, baina tradiziorik ez dagoen herrian nahi duzuna egin dezakezu. Handik eta hemendik edan, zure gustuko saltsa egin, eta inguruan kutsatu eta praktikatu. Hola sortzen da kultura. Zer gertatu da trikitiarekin? Nola pasa zen Italiako etorkin bat izatetik ikurrina baino euskaldunagoa izatera? Gureganatu genuenean. Nahi duzuna nahi duzun tokitik har dezakezu, zure

ingurukoekin partekatu, eta batzuetan naturala bihurtzen da. Egunero eta nonahi gertatu liteke hori. Izan ere, zer da tradizioa? Zenbat denbora behar da tradizio bihurtzeko? Zenbat liburutan idatzita egon behar du? Arrazoi zuen Jon Sarasuak tradizioa errespetatzeko berritu behar zela zioenean. Tradizioa ez baita leku bat, bide bat baizik, eta zu, beti izanen zara garaikide.

Ezinbestean.

Errealitatea da epailea. Lortu nahi dudana argi izanez, saiatuz, lan eginez eta inguruarekin harremanak zaindiz, artista gisan lema hartu eta harat edo honat mugitzeko ardura daukat. Adibidez, inauterietako etxex etxeko ibileran, nire esku dago erreperatorioa kudeatzea, La Polla edo Pantxoa eta Peioren kankak bultzatzea. Gozamina eta militantzia nahasten dira hor, eta ez da alferrik gozamina militantziaren motorra. Sufritzeko militantziak ez du zentzurik. Mendan ibiltzea bezala da: malda goiti zoazela sufrimendu puntutxo bat egon daiteke baina azkenerako plazera nagusitzen ez bazaizu ez zara itzultzen. Horregatik artistek ere bultzatu eta gozatu behar dute kultura.

Zuk euskara bultzatu eta gozatu ez ezik, ikasi eta erabili egiten duzu.

Zugarramurdin bizituta errazagoa da. Hemen euskaraz ikasten duenak erabili dezake. Bertalde, arras hizkuntza interesgarria da eta ez ikastea zozokeria handia zatekeen, altxorraren aitzinetik pasa eta ez ikustea. Ezin nuen galdu mundu berri batean murgiltzeko aukera. Horri ardura pertsonala gehitu behar zaio. Argi izan behar duzu euskara ikasiz paisaia euskalduntzen duzula eta ez ikasiz erdalduntzen. Zaborra edo transgenikoekin bezala da, zure esku dago bio erostea edo ez, zaborra bereiztea edo ez. Egiten duzun orok kokatzen zaitu balantzaren alde batean edo bertzean, zure ekintza bakoitzak indartzen du alde bat eta ahultzen bertzea. Nik beti izan dut argi zein aldetan egon nahi dudana. ■



**ESKATU
PUBLIZITATEA
EUSKARAZ**

© 943 371 545 · publiz@argia.com
www.argia.com/tarifak

Gerrako lubakiak berreskuratzen

Orain hiru urte, Lemoako San Antolin tontor inguruan (Lemoatx ere deitua) 1936ko Gudako lubaki batzuk aurkitu zirenean, berauek berreskuratzeko plangintzari ekin zion Udalak. Aranzadi elkartearen laguntzaz, Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen dituen Auzolandegiak programan aurkeztu zuten asmoa. Bi urtez auzolandegiak egin ostean, aztarna historikoak berreskuratzetik haragoko helburuak dituzte lemoarrek.

| LIDE HERNANDO |

URTEAK ZERAMATZAN Lemoako Udalak herriaren memoria historikoa indartu nahian, batez ere gazteen artean. “Lubakiak aurkitu zirenean, Udaleko Gazteria zerbitzuak auzolana eta memoria historikoa lotzeko momenturik onena zela ikusi zuen. Eusko Jaurlaritzak auzolandegiak antolatzen zituela entzun, eta Lemoako lubakien berreskuratzea proiektuan sartzea erabaki genuen”, dio Mikel Garciak, Udaleko Gazte teknikariak.

Hiru arrazoi nagusi aipatzen ditu Garciak auzolandegi horiek egiteko: “Batetik, herri batean zenbait gauza auzolanean egiteak kosteak murrizten ditu, baita herritarren eta herriaren arteko lotura sendotu ere; bestetik, Jaurlaritzaren egitasmoa herriko gazteentzat eredu gisa ikusten genuen; eta azkenik, hezkuntza ez formalean, herritar guztientzat lan-keta sakona proposatzen zuen”.

Aranzadi elkarteari auzolandegiaren alde teknikoa eramateko eskatu ostean, Udalak Lemoatx 1937 batzordea sortu zuen (lubakiak urte horretakoak baitira). “2013ko udaran egin ziren lehen aldiz: hamabost eguneko bi txanda izan ziren, eta bakoitzean 18 eta 24 urte bitarteko hamabost gazte atzerritar eta bost gazte euskaldun etorri ziren”, dio Garciak. Goizean lau zapabost orduz aritzen ziren lubakietan, eta arratsaldean libre eduki ohi zuten. Lehenengo urteko indusketetan ikusi zenez, uste zena baino lubaki gehiago zeuden berreskuratzeko, eta auzolandegiak hainbat urtez luzatzea erabaki zuten. Gerra garaiko material asko ere aurkitu zuten: obus bat, gorpu bat, platerak, bala-zorroak...

Auzolandegiak amaitutakoan, ordea, egin beharreko lana amaitu gabe zegoela ikusi dute eta zeregin horiek bukatzeko, Udalak auzolan



deialdia egin die herritarrei. Bi aldietan, boluntario kopuru handia gerturatu da laguntzera.

Proiektu zabalagoa xede

“Aurtengo auzolandegien ostean, Lemoatx 1937 batzordea, Aranzadi eta memoria historikoan jarduten diren beste zenbait erakunde elkartu gara etorkizunera begira zer egin dezakegun zehazteko”, dio Garciak. “Erabaki dugu San Antolin-eko gune guztia publikoaren-

tzako museo historiko bat bailitzan prestatzea, ez soilik lubakiak erakusteko, baita gerran bertan gertatutakoa azalduko duten panel batzuk jartzeko ere. Tontorrean dagoen frankismo garaiko ermitari kutsu erlijiosoa kendu eta informazio zentro moduan prestatuko dugu”.

Memoria historikoari lotuta, frankismo garaiko sinboloak erauztea ere helburu du Udalak. Ermitaren kutsu erlijiosoa, Lemoako elizatik Gantzabal tontorrera doan Gurutze-bidea eta zenbait etxetan *Ministerio de Vivienda* dioten plakak kendu nahi dituzte. ■



Irudian, pasa den udako auzolandegietan berreskuratu dituzten lubaki batzuk. Obus bat, gorpu bat, platerak, bala-zorroak... ere agertu dira.

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Soleczniki eta Lituaniako gutxiengo poloniarra

INDEPENDENTZIA BERRIKI lortu duten Ekialdeko Europako herrialdeek politika oso nazionalistak garatu dituzte. Mendebaldeko nazio-estatu zaharrek mendeetan uniforme bihurtzeko bidean emandako pausoak estatu berriek epe motzean eman nahi izaten dituzte era autoritarioan. Metodoa ezaguna dugu Mendebaldean, kontua da hemen demokraziarik gabeko edo dentsitate demokratiko baxuko testuinguru historikoetan egin zela. XXI. mendean aldiz, gutxiengoaren defentsa eta demokrazia hegemoniko bilakatu dira diskurtso politiko demokratiko liberalean.

Gehienetan estatuen mugak ez dira naturalak, horregatik nazionalismo batzuek historiara jotzea atsegin dute lurralde aldarrikapenak justifikatzeko, batez ere horietan beraien sentimendu nazionala nagusi ez bada. Lituaniako erai-kin publikoetan Lituaniako Dukerri Handiak inoiz izan zuen zabalera handienaren mapa topa daiteke nonahi. Lituaniarrei maiz entzungo diezue esaten Odesaraino iritsi zirela Lituaniako lurraldeak. Esplicituko ez dutena da Dukerri hori eslaviarra zela: hizkuntza ofiziala errutera zen (teorien arabera bielorrusieraren, ukraineraren, errusieraren edo denen aitzindaria) eta hainbeste gorazarre egiten dioten Vytautas Handiak ez zekien lituanieraz.

Soleczniki-n biztanleen %77 lituaniar-poloniarra da, baina Estatuak poloniera desagerrarazi nahi du bizitza publikotik. Esate baterako, dokumentu ofizialetan lituaniar-poloniarrek ezin dituzte izenak beraien hizkuntzan idatzi eta polonieraz edozein kartel idaztea debekatuta dago, baita negozio eta etxe pribatueta ere


Ahulduta zegoen lituanieraren egoera nabarmen kaskartu zen Dukerriak eta Poloniak konfederazioa osatu zutenean: bere herritarren parte batek errutera eta lituaniera utzi egin zituen polonieraren mesedetan. Ordutik, Vilniusen gehiengo-

ak polonieraz hitz egiten zuen, nahiz eta ekialdeko eslaviar hizkuntzen presentzia ere garrantzitsua izan. XX. mende hasieran judutarrak lehenengo nazionalitatea ziren hirian, yiddisha erraz entzun eta irakur zitekeen. Lituaniarrek kasuan kontrakoa zen, lituanierak hirian zuten presentzia 1897tik 1931 bitarteko erroldan arabera %0,8 eta %2,6 artekoa zen eta Vilniuseko eskualdean ez zen %20ra iristen.

Lehen Mundu Gerran alemanek Vilniuseko eskualdea lituaniar estatu berria izatearen aldeko apustu egin zuten, baina gerra galdu zuten, poloniarrek hartu zuten armeez. Bigarren Mundu Gerran etorri zen errebantxa. Lituaniar nazionalistak judutarren aurkako progromoetan protagonistetako bat bilakatu ziren, gutxi gorabehera %45eko populazio judutarra zuen Vilnius desagerrarazi zuten. Gerrak iraun zuen bitartean lituaniarrekin birpopulatzeari ekin zioten hiriburua eta sobietar garaian joera hori indartu zen. Halere, oraindik Vilniusen populazioaren %20 inguru lituaniar-poloniarra da (beste %20 bat ekialdeko eslaviar-lituaniarrek dira). Bestalde, hiriburua gehiengo poloniarreko herriek osatzen duten eraztun batez inguratua dago.

Soleczniki-n biztanleen %77 lituaniar-poloniarra da, baina Estatuak poloniera desagerrarazi nahi du bizitza publikotik. Esate baterako, dokumentu ofizialetan lituaniar-poloniarrek ezin dituzte izenak beraien hizkuntzan idatzi eta polonieraz edozein kartel idaztea debekatuta dago, baita negozio eta etxe pribatueta ere. Halere, herritarrek beren kabuz dirua bildu zuten familia bakarreko etxe pribatueta kaleen izen elebidunak jartzeko. Herritarrek isun astronomikoak jaso zituzten, eta beraiek ordaindu ezean udalak ordaindu beharko ditu. Zdzisław Palevič-ek, alkateak, tristeki azaldu zidan egunez egun ordaindu beharreko diru kopurua handitzen doala eta hori saihesteko aukera bakarra etxe pribatueta kartelak kentzea dela. Lan zaila eta itsusia da udaltzaingorik ez duen udal batentzat jabetza pribatua inbaditzea. ■





Iñaki Antigüedad

AMAIURREKO DIPUTATU OHIA ♦



DANI BLANCO

Badugu zer ikusi eta ikasi

ESKOZIAK aitortu dioten erabaki-eskubidea gauzatu eta lehengo Estatuan segitzea erabaki du, egunekoa kudeatu eta gerokoa bideratzeko eskumen gehiago jasotzeko promesez. Hala ere, epe ertainean han izan daitezkeen eszenarioak oso irekiak dira, estatua izatea barne, orain arte ibilitakoa sinesgarria den seinale. Hortaz, eskubidearen jabe izateak ez dakar, ezinbestean, estatua den burujabetza formaren alde egitea. Derrigorrezkoa izanda ere, ez da estatu izateko nahikoa. Hots, eskubidea gauzatzeak burujabe egiten du herria, berez, baina estatua sortzea bestelako urratsa da, herritar gehienek etorkizunera doan bidea funtsean eurek kudeatzearena, hori bideragarri sentituta.

Momentuz Eskozian konformatu egin dira Londresek prometatutarekin. Ez badu hark betetzen, estatu izatea eskura izan dezakete eskoziarrek. Eta betetzekotan? Konformatuko ote gaurko eskoziarrak? Eta biharkoak? Non dago burujabetzaren muga? Zenbat da nahiko? Gurera etorrita, batzuek Kontzertuaren inguruko autogobernu-gaurkotzearekin herritar gehienak konformatzeko moduko maila batera heldu nahi dute, eta horaxe mugatu euren kontsulta. Puntu eta azkena. Baina burujabe izateko ezker subiranistok ditugun arrazoiak askoz haratago doaz, botere-guneak gertu,

garden, zabal, eraginkor behar ditugu, nazioartean hartu behar ditugun konpromisoak bertatik betetzeke ere. Hortaz, gaurko Europar estatuek duten beste burujabetza izan liteke gure tarteko helmuga sinesgarria.

Burujabetza prozesuen eredu desberdinak. Katalanian mugimendu zibilak bertan eragindako prozesu politikoa, eta galdera argia boto-paperean. Eskozian bertako alderdiek bertan eragindako mugimendu zibil-politikoak, eta galdera argia paperean. Eusko Jaurlaritzaren alderdia gobernu zentralaren esperotan, eta balizko biharamunean egun bateko mobilizazio soziala buruan, erantzun bakarria paperean. Bitartean, ezker subiranistok...

Izan ere, Eskozian nagusitutako ezetzak agerian utzi ditu gure prozesuaren gabeziak. Hala adierazi dute

prentsa hurbilean politikaren ohiko hainbat analistak. Funtsean, berez integrala izan behar duen prozesua, sozio-ekonomiko-politikoak, kudeatzea zaila dela; neurriko sinesgarritasuna lortzeak lan eta denbora asko eskatzen duela; mobilizazioak inportanteak izanda ere edukien bide-orria ezinbestekoa dela, baina horrekin batera, Europako XXI. mendean posiblea dela! Badugu zer ikusi eta zer ikasi. ■

Eskozian nagusitutako ezetzak agerian utzi ditu gure prozesuaren gabeziak. Hala adierazi dute prentsa hurbilean politikaren ohiko hainbat analistak



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Bulnerabilitatea

ITZIAR ZIGAK behin idatzi zuen “zer esango ote duten” delakoak agintzen duen jendartean bizi garela. “Zer esango ote duten” horrek nahi dugun hura, garen hura edo probatu nahi dugun hura mugatzen digula. Muga horiek hain zuzen, esfera publiko guztiak erregulatzen dituen moralak dutela oinarri.

Bulnerabilitate egoera handian jartzen omen gara publikoki jendarte zuzenaren marra gorriak laztantzen ditugunean. Eta bulnerabilitateari izua dio gizakiak. Horregatik egiten diogu uko askotan gehien desiratzen dugunari, apurtzeari, hitzaldi bat emateari, iritzi bat plazaratzeari...

Esfera publikoa ordea, ez da berez bulnerablea. Bulnerable sentitzen gara, *de facto* leku hori okupatzea tokatzen ez zaigunok hori hartzen dugunean. Eta noski, hartu behar ez genukeen bezala hartzen dugunean.

Aurreko astean inoiz baino bulnerableagoa zen eszenatoki bat hartu nuen, eta “ausarta” deitu zidan batek baino gehiagok. Eta agian hala da, baina egia dena da, dagoeneko hara heltzerako “zer esango ote duten” mamu guztiak uxatuta nituela. Eta ez dakizue benetan, horrek ze lasaitua ematen duen. ■





Iñaki Mendiguren

♦ ITZULTZAILEA

Ez nau izutzen (bizitzako) negu hurbilak...

J. HOGEITAKA URTEKO mutil gaztea da, euskal herri-tarra, eta kirolari amorratua zen, asko ez dela Albo-ko Esklerosi Amiotrofikoa diagnostikatu zioten arte. Dagoeneko oso ezinduta, heriotza eta heriotza besterik ez omen du erregutzen. Baina ingurukoek ezin irentsi erabakia eta lasaitzeko eskatzen diote, onartzeko bere egoera.

Gure artetik joandakoak gogoratzeko egunetan gaudelako kon-tatu dut hori. Eta heriotza ez dela-ko hildakoen afera, baizik eta batez ere biziona; zerbaitek bereizten bagaitu gizakiok beste abereen-gandik hilkortasunaren kontzien-tziak bereizten gaitu. Eta heriotza-ren beldurrak azaltzen du ongien zergatik behar izan duen gizakiak bere erlijio edo filosofietan arimen transmigratio edo berraragiztape-na, arimen hilezkortasuna, hilda-koen piztuera eta abar asmatu.

Izan ere, dagoenik eta kolperik gogorrena da gure “ego”arentzat, ume-umetatik neke handiz eraikitako “fikzio” horrentzat, bat-batean desagertzea! Eta ez du egoera asko hobetzen gure artean azkenaldian heriotza berriro tabu bihurtu izanak; saiatzen gara gugandik urruntzen, isiltzen, ezkutatzen... baina alfe-rrik! Niretzat bi ariketa badira gai honetan lagungarri: bata, egunero minutu batzuk ematea Herio besarkatu eta berarekin adiskidetzen... biharamunera arte itxa-

Dagoenik eta kolperik gogorrena da gure “ego”arentzat, ume-umetatik neke handiz eraikitako “fikzio” horrentzat, bat-batean desagertzea!

ron dezala eskatuz! Egunean zehar bakea ematen du gero. Eta bestea, gure egoa puztu ordez, airea ken-tzen saiatzea; izan ere, itsaso zabaletik sorturiko ola-tuak bezala gara, urtetxo batzuk hondartzan jolastu eta berriro itsaso zabalera itzuli beharrekoak. Gure egoak ez duela ur-masa handi horretan nahastu nahi? Ez, ez du nahi, “baina hilkor sortu ginen eta zer erre-medio” *Odolaren mintzoan* Xalbado-rrek dio.

J.-ren kasua kontatu zigunak beraren alde otoitz egiteko eskatu zigun, bere egoera onartu eta keme-na izan dezan. Baina nik (eta beste askok) ezin diogu jada, umetan bezala, jainko ahalguztidunen bati errezatu. Hala ere, goizero izaten dut J. gogoan, eta eskatzen diot Bizitzari egin dadila J.-ren boronda-tea lurrean behintzat, ez baitago inon gizakiari heriotza duina ukatu-

ko dion jainkorik. Geure bukaeraren kontrola geure esku izateak ere laguntzen du heriotzari beldurra gal-tzen. “Ez nau iluntzen baratzatikan / azken loreak biltzeak / ... / amets betezko loa baitakar / behin betirako hiltzeak” (X. Lete/M. Laboa).

PS: Testu hau idatzita zegoela iritsi da albiste: J.-k lortu du bilatzen zuen bakea, ingurukoei ere ez diet gutxiago opa! ■



Moyua

hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com



KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta

Legatz-solomoa plantxan

(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaURI.com

Natura sentitu

Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Zilbor, besteak

“MILAKA URTEKO hizkuntza da gurea, etorkizun oparoa du aurrean. Hiztunok, berriz, inolako konplexurik gabe defenditu behar dugu geure hizkuntza, eta bizitzaren alor eta egoera guztietan erabili. Gure hizkuntzari esker, emozioak, ezagutzak eta bizipenak partekatzen ditugu; hizkuntza da batzen gaituena, gure arteko lokarria. Bada gurea baino handiagoko hizkuntzarik, baina guri geurea zaindu, indartu eta zabaltzea dagokigu”.

Euskalgintzaren jirako bilkuretan behin eta berriz esan eta entzundakoak izaki, aurreko paragrafo horretan aipatzen diren arrazoiak arrunt ezagun, argi eta xalo begitانتzen zaizkigu euskal munduan bizi garenoi. Ni behintzat harritu egiten naiz (oraindik ere!) diskurtso horren azpian hizkuntzarekiko ikuspegi zaharkitua dagoela esaten zaigunean albo-erdareta-ko batean. Zaharkitua ez ezik, arriskutsua eta susmagarria ere ba omen da, gainera. Horrelakoak entzunda, aldarteak haserre bizira egiten dit jauzi. Sarri, tamalez. Orain hurrena, Yolanda Barcina aritu da horrelako txolinkeria merkeak esaten. Baina, tira, txori-burutik txori-txioa beti, eta horrenak min ere ez luke emango... aginpiderik ez balu. Okerragoak entzunda gaude, eta niri bat zait bereziki mingarri. Euskara desagertuko balitz zer gertatuko litzatekeen galdetu ziotelarik, “ezer ez, gaztelaniaz edo frantsesez hitz eginez berdin biziko ginatke” erantzun zuen, nork eta Mikel Azurmendi idazle, filosofo eta antropologoak. Azurmendirena, garbi daukat nik hori, ez da txori-buru kontua, inor gutxik bezala iker-tu baitu euskarak berekin dakarren mundu-ikuskerara berezia, euskara galduz gero betiko galduko litzatekeena. Eta hori, Mikelek dakien bezala, sekulako hondamendia litzateke, guretzat ez ezik baita munduaren-tzat ere.

Honezkero agian ohartuko zinen, irakurle, ziria sartu dizudala, artikulu honen lehen paragrafoko arrazoiak ez baitira euskalgintzan hain ohikoak diren zer-gara-gu-nor-gara-gu bilera jira-birari horietako batean esanak, baizik eta aurtun laugarren aldiz egingo den espainieraren jirako topaketa arranditsu baten aurkezpen are arranditsuagoan aldarrikatuak.

Paragrafo hori, dagoen-dagoenean, ez da inork esan edo idatzia, nik sortua —edo, zuzenago esanda— nik osatua baizik. Ez dut neurerik ezertxo ere gehitu: hor ageri direnak, guztiak dira topaketen aurkezpenean esanak. Nire sortze-lan bakarra, “espainiera” zioen lekuan “(gure) hizkuntza” jartzea izan da.

Topaketa horien izenburuak badu bere zera: Etor-kizuna Espainieraz (*Futuro en Español*). Batek daki zein ote den hor elipsiak jandako aditza, baina larri ibili agintera izatea...

Esaldien jabego intelektuala, aurkezpenean hizlari aritu ziren intelektualei dagokie. Oronen buru, José Ignacio Wert ministro (oraindik ere!) jauna ageri da prentsako argazkian, eta haren alboan, besteak beste, Vocento Fundazioko lehendakari Enrique de Ybarra jauna. Batere susmagarria ez den jendea, barren. Nik neuk, horiek aipatuko ditut aurretantzean euskararen aldeko diskurtsoaren berme gisa, orain arteko Mitxelena, Txillardegi eta abarren orde. Alde ederreko errespetua jarri behar dut alajainetan!

Den-dena aitortzera, bada hizlari goitarrok erabilitako arrazoi bat,

hasierako paragrafo horretara bildu ez dudana. Espainieraren etorkizunaz baikor izateko bi arrazoi aipatu zituzten. Bata, milaka urteko hizkuntza dela. Euskara bezala. Beste, hitzez hitz, “espai-
nietak etsairik ez duela”. Euskarak bezala? ■



Antton Olariaga

GAZTEA ZARA?

BAKEAZ HITZ EGINGO DUGU?

Bai badakigu, bake eta bizikidetzaren inguruan hitz egitea korapilatsua izan daiteke... baina Gazteriaren Kontseilutik ikuspuntu gazte eta berritzaile batetik lantzeraz gonbidatzen zaituztegu.

Ekintzak modu ezberdinean pentsatu ditugu, aniztasuna eta gazteen arteko hurbiltasuna eta konfidantza bilatuz.
Ez hutsik egin!

EKINTZA GUZTIAK DOAKOAK DIRA
(bidaiarako gastuak ordainduko dira)

Formazioa

Bilbo, azaroak 11
Vitoria-Gasteiz, azaroak 18
Donostia, azaroak 25

Bake lbilbidea, gazteen arteko topaketa eta pintxo potea

Bilbo, azaroak 14
Vitoria-Gasteiz, azaroak 20
Donostia, azaroak 28

Izena emateko
bakea@egk.org / 943 429767
+ info



«Antzerkirako sormen prozesuan garrantzitsuenak izanik ere, ahaztuena da testua»

Mikel Martinez aktore eta Tartean Teatro taldeko kidea Cafe Bar Bilbao tabernako jabea ere bada. Bi elementu horiek uztartuta sortu zen duela hamabi urte Cafe Bar Bilbao Teatro Laburreko Gidoien Saria, antzerkiaren oinarrian dagoen hitza gorestea helburu duena. Urte bukaera arte luzatuko da antzezlanak aurkezteko epea. Lanek 30 minutuko iraupena beharko dute izan, gehienez ere.

| MYRIAM GARZIA |

Zein da sariketaren helburua?

Antzerkirako sormen prozesuan garrantzitsuenak izanik ere, askotan ahaztuena da testua, behar besteko garrantzirik eman gabe pasatzen da. Sariketak, hain zuzen, testua du ardatz, istoriorik ez bada gozagarria ez dagoelako ezer. Idazlearentzat edo gidoilariarentzat ere lan zaila izaten da, sortutako antzezlanak gehienetan tiraderaren batean amaitzen delako, bereziki idazleak antzerkiarekin harreman zuzenik ez badu. Argitaratu ere, ez da sobera argitaratzen, oso gutxi saltzen delako irakurtzeko den antzerkia. Antzerki talderen batek espresuki eskatuta ez bada, aukera eskasa du antzezlanak taulartzeko. Lehiaketa xume honen helburuetako bat horixe da, teatroa idaztera animatzea, horretarako aitzaki bat izatea. Egilea eta gidoigintza bultzatu nahi dira.

Nolako irtenbidea ematen dio sariketak irabazleari?

1.200 euroko saria eskuratzeaz gain, prentsan izan dezakeen oihartzuna izango du bere alde. Bestalde, Tartean Teatroko webgunean ere argitaratzen dugu antzezlanak. Ez beti, baina posible den heinean, eta Tartean Teatro taldeak ematen digun aukerari esker, gidoi irabazlearen irakurketa antzeztua egiten dugu.

Publikoarengana hurbiltzea edota antzezlanaren ikusgarritasuna erraztu nahi dugu. Irakurketa dramatizatuari esker oso ondo

ikusten da antzezlanak nolakoak izan litekeen eta horrela errazagoa da gerora teatrogileren baten interesa piztea.

Zergatik teatro laburra?

Formatu interesgarria da, balizko ekoizpenetarako erraza delako. Teatro labur zeri deitzen zaion zehaztea zaila da, baina esan daiteke baliabide gutxi behar dituzten obrak direla, bai aktoreen kopuruari begira, bai arlo teknikoaren aldetik ere. Ordu erdiko luzera duten lanak dira, gutxi gorabehera. Hala ere, ordubeteko lana ere egin daiteke hitz gutxirekin, eta aldearantziz, testu luzeagoa izan eta ordu erdi besterik ez osatu. Normalean ekoizpen errezako lanak saritzen dira, eszenografia xumekoak.

Oro har, testua irakurtzearekin batera sumatzen da lanak ekoizpen garestia beharko ote duen. Oso gauza subjektiboa bada ere, guk baloratzen duguna eta saritzen duguna taulartzeko erraza izatea da, balizko ekoizpenetarako betiere.

Sari bana, euskaraz eta gaztelaraz egiten diren gidoietarako.

Bai, baina batez ere euskarazko gidoigintza interesatzen zaigu. Gehiagotan eta hobeto iragartzen dugu euskarazkoa, bulkada berezia ematen diogu. Agian horregatik ez dago hainbesteko alde euskaraz eta erdaraz aurkeztu diren lanen artean. Gaztelaraz aurkeztu diren lanak 40 bat izaten dira eta euskarazkoak 17 inguru, baina nik badakit,



antzerkiaren mundua ongi ezagutzen baitut, euskaraz 17 lan jasotzea mordo hartzea dela. Marka handia da guretzat. Oso pozik gaude parte-hartzearekin. Gero, pena da saria bakar bati eman beharra, eta asko batere gabe utzi beharra, saria merezi arren, maila ona delako.

Bestetik, gaztelerazko gidioen egileak, EAEkoak eta Nafarroakoak izan behar dute, azken finean, baliabide gutxi ditugu eta, aurren, aurreko deialdietan ez bezala, Hego Euskal Herriko egileetara mugatzea erabaki dugu. Euskaraz aldiz, Euskal Herri osotik ez ezik munduko edozein tokiko antzezlanak onartzen ditugu.

Zer ezaugarri izan behar ditu antzerkirako testu on batek?

Kontatzen dena edota kontatzeko modua, originala izan behar dute. Emozioak sortarazi behar ditu, barrea, negarra, beldurra edo jakin-mina; ondo garatua behar du, antzerkiak eskatzen dituen inflexio-puntuak ongi zehaztuta; irakurtzean lotzen duen horietakoa izan behar du testuak, alegia istorioak ona izan behar du, edo oso ondo idatzia behar du eta horretarako hizkera aberasgarria erabili. Ona izan dadila, azken finean.

“Irakurketa dramatizatuari esker oso ondo ikusten da antzezlanak nolakoa izan litekeen”.

ERDIKO KAIERA

Bitxia da ekimen pribatu batek antzerki sariak banatzea edota bultzatzea eta Eusko Jauriltzak berak ez izatea antzerkiaren eta dantzaren gaineko saririk.

Santurtzin izan zuten gidoi sariketa, baina hura ere kendu zuten. Bai, berezia da, taberna bat izatea gidoiagintzari saria ematen diona, baina jabea nor den jakinez gero, ez da hain harrigarria! Imaginatzen dut txalotzeko moduko ekimena dela, baina gurea ekimen xumea da hala ere. Oso zalea naiz eta gidoiagintza edo egileak bultzatzea oso garrantzitsua iruditzen zait.

Edozein idazlek egin dezake teatrorra jauzi?

Bai, edozeinen esku dago. Sarian parte hartzen duen jendearen artean denetarik dago, ezagunak eta hasiberriak; normalean antzerkirako idazten ez duten idazleak, baina saria medio animatzen direnak eta antzerkirako gauzak eginak dituztenak; eta inoiz idatzi ez duenak, inongo generotan. Badira bizitzan lehenen aldiz idatzi izanagatik gauza izugarri onak aurkezten dituztenak, eta hain ondo egiten ez duten antzerkigile ezagunak ere... Zaila da bakar bati saria ematea, beti da bidegabea.

Betiere, gizonak nagusi gidoigintzan.

Antzerkigile bezala, emakume gutxi dago, bai. Behin Aizpea Goenagak irabazi zuen, baina egia da, aurkezten diren antzezlanen artean parte-hartzea askoz ere txikiagoa da emakumeena, bostetik bat izango da haiena, baina ez dakit zergatik. Aktoreen artean ez dago horrenbesteko alderik baina egileen artean bai. Agian, emakumeek berdin idazten dute, baina ez dira sarietara aurkezten.

Nola ikusten duzu euskal antzerki eszena?

Gazte-piloa ikusten dut gauzak egiten, baina euskararekiko jarrera nahiko ahula dela esango nuke. Eskertuko nuke jarrera aktiboagoa erakutsiko balute. Iruditzen zait, gure sasoian, arlo guztietan bezala antzerkian ere, euskararen aldeko jarrera hobea zegoela. Adibidez, Maskarada bezalako proiektua pentsaezina da gaur egun.

Antzezlanetan oso garrantzitsua da jatorrizko hizkuntza euskara izatea, eta ez izatea itzulpena edo moldaketa. Horrela eginez gero, jatorrizko hizkuntza euskara bada, badakizu zein publiko motara hel zaitezkeen, zeintzuk diren zure aukerak eta zailtasunak. Erdarazko antzezlan baten gainean lan egiten baduzu eta, halako batean, horren euskarazko bertsioa egitea bururatzen bazaizu, aukera ugari du euskarazko bertsio horrek txarto irteteko. ■



ERDIKO KAIERA

ARTEFACTORY

Horma-irudien bidez, kalea eraldatzen

Artefactory muralgintza enpresa duela bi urte sortu zuten hiru gaztek, eta denbora tarte horretan munduko 18 hiritako 2.100 m² eraldatu dituzte, 100 horma-irudiren bidez, besteak beste Madril, Bombay eta Shanghai hirietan. Duela gutxi Euskal Herrian dagoen obrarik handiena sortu dute Deban, 500 m² eta 28 metroko altuera duen horma-irudia.

| MYRIAM GARZIA |

DONOSTIAN dago Artefactory, hormetako artea eta diseinua latzen dituen enpresa. Unibertsitatean elkar ezagututako hiru gaztek sortu zuten duela bi urte, eta orduz geroztik, hainbat proiektu gauzatu dituzte. Hiru sortzaileetako bat den Martin Unzuetak azaldu digunez, irudi ugari sortu dute denbora tarte horretan; jatetxe, udaletxe, gimnasio, haur-tzaindegi, komertzio txiki eta beste dituzte bezeroen artean.

Proiektu berrienetakoa Deban gauzatu dute. Euskal Herriko horma-irudirik handiena da, 28 metro luze baititu eta 500m²-ko azalera. “Gainera, herriaren sarreran eta hondartzaren ondoan dagoenez, are eta ikusgarriagoa da” dio Unzuetak. Aurretik hainbat lan egin dituzte. Esate baterako, Pedro Subijarenaren Akellarre jatetxean, Kutxan, Beffeater enpresak eskatuta, Urbil merkataritza zentroan, Sr. Goldwin, Deba eta Segurako



Artefactorykoek egindako horma-irudi bat, Indian.

herrietan egindakoak...: “Gipuzkoan egin ditugu gure lan gehienak, bat edo bat Bizkaian, baina Euskal Herritik kanpo aritzeko aukera ere izan dugu”.

Unibertsitateari esker, Txinara eta Indiara joateko aukera izan zuten, “bertako enpresen ekosistema ezagutzeko eta gure proiektuak herrialde horietan aurrera eramateko. Txinan, eta batez ere Indian, harrera oso ona izan dute gure lanek eta horma-irudi ugari egin ditugu han”, Unzuetairen hitzetan. Bestetik, publizitate agentziekin lan egiteko aukera ere izan du Artefactoryk. Horren adibide da Beefeater enpresak eskatuta osatu duten murala.



Surfing Deba, Debako hondartzan.

Horma hilak, horma biziak

Seguran edota Deban egindako muralek herri hauen eguneroko pasaia eraldatu dute. Espazio publikoak beste dimentsio bat hartzen du irudi horiei esker, eta alderantziz, muralak beste esanahi bat du kalean kokatzen denean. “Gu gehien betetzen gaituena jendeak gure muralekiko izaten duten jarrera da. Begira gelditzea, arreta ematea, ondotik pasatzean irribarre eragitea, lanerako edo eskolarako bidea pixka bat alaitzea, ingurua hobetuz sentimenduak eta sentsazio onak sortzea”, dio Artefactoryko kideak. “Gure lanak kalean hartzen du zentzu bete. Partikularrentzat lan ugari egin dugu, eta etxean edo lantokian sentsazio hori sorraraztea izugarria da, baina lan hauek kalean beste dimentsio bat hartzen dute”.

Neurri handiko proiektuok duten zailtasunez galdegin diogu Artefactoryko Martin Unzuetai: “Lan bakoitzak bere gauzak ditu. Debako kasuan adibidez, margotu genuen edificazioaren kontra beste edificio bat zegoen, baina eraitsi eta fatxada airean gelditu zen. Pareta, beraz, oso egoera txarrean zegoen, poliuretanoz estalita eta guztiz malkartsua. Pareta egokitzea izan zen zailtasun handienetarikoa. Mural handien alderik garrantzitsuenak marrazkia ondo enkoadratzea eta dimentsioak ondo hartzea da. Izan ere, errazagoa da metroko xehetasunak egitea, milimetrokoak baino”.

Gazteak izanagatik ere, Artefactoryko margolariak 20 urteko esperientzia dute



Ĺnaki tabernako horma-irudia, Donostian.

horma-irudi eta graffititan. “Mota guztietako estiloak egiteko gai gara. Hala ere, kasu gehienetan bere gogoia adierazten digu bezeroak eta horren arabera egiten dugu diseinua. Gure ustean hoberena zer izan daitekeen aholkatzen saiatzen gara, zein kolore erabili, zein estilo... diseinua bezeroarekin batera birsortzen dugu”, azaldu du Unzueta.

Hala ere, hormak margozteak hainbat aurreiritziren aurka aritzea dakar, Artefactoryko kidearen ustez: “Graffitiarekin lan egiteak konnotazio negatibo ugari izan ditzake oraindik ere. Hala ere, joera konstruktiborik ere bada, aldeko kontzientzia sortzen ari da eta arte modu hori gero eta gehiago ezagutu eta baloratzen dela esango nuke”. ■



Literatura | POESIA

Urari ostutako poemak
Pako Aristi.

Susa, 2014



Ahaztuta geneuzkanaz

MIEL ANJEL ELUSTONDOK bota zion Pako Aristiri ARGIAN bertan, ekialdeko pentsamendua guztiz presente dagoela *Urari ostutako poemak* argitaratu berri honetan, eta Urrestillakoak bere zehaztasun berezi horrekin, erantzun zuzen bat ematen duena baino egiazkoago beti, oneskiago beti: “Ekialdeko pentsamendua baino gehiago, bizitzaren aurreko jarrera bat da”.

Noiz ahaztu zitzaigun bada guri sentitzea?

Castletown (1996), *Oherako hitzak* (1998), *Libreta horiko poemak* (2003)... bide bat egin du Pako Aristik zerbaiten bila, gero eta sakonago begiratzera eroan duena, naturaltasunaren poeta handi bihurtzeraino. Inoiz begitandu zaizkit bere idatziak negartiak eta kexaontziak, baina orain ez, urteekin hobeto ulertzen dut daukan joera anarkista hori, libertatearekiko atxikimendua: “Gizakiaren gaitza:/ Pentsatzea./ Neurri egoki guztien gainetik/ eztanda egin zuen/ garunaren mende.// Garun hiper-garatua/ piztia ahul baten gorputzean”. Teknikaren eta gerren mundu honetan galdu dugun inozentzia dakar Aristik atzera ere, gogoraziz badugula zilbor bat lotzen gaituena orain arteko gure ama guztiekin eta ahaztutako sentsazioekin: bizitza, errukia, heriotzaren ederra.

Gonbita egiten digu beraz zeozet sentitzera, kontzentzioak baino harago burrukatzera gizakiaren

alde, gizakiaren aurka. 69. orrialdeko “Ni, Rosa Ugartemendia Sarobe” poemaren amorrua, deskripzioaren negargura, mamiaren eta formaren arteko lotura perfektua, jenioen kontua dira.

Hitzak baino harago ari direnen kontua, *Urari ostutako poemak*. Gustatu zait liburuari darion esentzialismoa, zen izan barik. Gustatu zait, halaber, naturari kantatzea politikoa izateari utzi gabe. Zentzu horretan Aristiren azken aldiko saiakera lanen eta artikuluen dekantazio lirikoa dirudi batzuetan liburuak, eta beste batzuetan denok gaintitzen gaituen unibertsoari egindako aintza: “Izango naiz berriro enbrioi,/ ernamuin arina/ haize leunen abaroen”. Gertu eta urrun. Gu eta besteak. Hasiera eta amaiera. Hara berriro planteatu nahiko lituzkeen kontzeptuak.

Intelektualizazioak utzi eta bihotza hunkitzen duen poesia filosofikoa da *Urari ostutako poemak*. Tituluak iradokitzen duen legez, poemak existitzen ziren lehendik. Orain munduaren korronteak ekarri dizkio Pako Aristiri berak transkriba ditzan, esaldiak errepikatuz eta errepikatuz. ■

Igor
Estankona



Kanporaketak



Zeanurin, azaroaren 9an, 17:30ean, Ibarreta frontoian



Ander
Bortegi
Garatea



Beñat
Vidal
Gurrutxaga



Igor
Menika
Bengoetxea



Imanol
Uribe
Albizuri



Joseba
Barandiaran
Andueza



Xabier
Galtzagorria
Abaroa



www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa



Tabernan ere
euskara

dendak ere euskara



**EUSKARA DAKITEN
ESTABLEZIMENDU ETAN
IRUDI HAU
IKUSIKO DUZU**

INFORMAZIOA
ETA
ESTABLEZIMENDUEN
ZERRENDA:

www.euskaraz.net



Jarrai gaitzazu:
#ereeuskaraz

JAINKO ----- SOLDATA	MOTZ ----- IDAZKERA	GIZON, HITZ ELKAR- TEETAN	EUSKAL FONEMA ----- OIHAL OSO FIN	HERRI NAFARRA ----- JARDUN, ERAGON	IZAN DADILA ----- SALGAJEN ZERREDA	MATAZAK HARILITZEKO TRESNA ----- AKATSAK
		NABIGAZIO ----- MUSIKA NOTA (ALDE- RANTZIZ)		RIAD-EKO HERRITAR ----- 500, ERRO- MATAR ERAN		
PERTSONAIA- REN ABIZENA ----- INAUSKETA					EMEEN UGATZ ----- DAGO	
EGUZKI	FRANTZIOA ----- AFIXA		 DANI BLANCO			40, ERRO- MATAR ERAN ----- GIPUZKOAKO HERRIA
		MALKO HANDI		... HARTU, LO EGIN ----- PERTSONAIA- REN IZENA		
A HIRUTAN ----- ZAKUR						
	NITROGENOA ----- HUTS, AKATS			GADOLINIOA ----- HEZURRE- TAKO BARRUNBE		IODOA ----- ZEINEK
KAMISETA MOTA ----- PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA		TELEBISTA ----- ZEIN TOKITAN		NAHASTE ----- HITZ, MINTZO	SORBALDA, BIZKAR ----- RONA	
					ZOOLOGIKO ----- KILOGRAMO	
TONTO ----- MIKEL..., PILOTARIA		LEUNKI ----- BYTE		MUGAN DAGOENA		

A portrait of a man with dark hair, wearing a dark button-down shirt, smiling slightly. The photo is tilted and has a white border.

A group of people, including a man with glasses and a woman, sitting in wooden bleachers, looking towards the left. The man is shirtless and wearing glasses, and the woman is also shirtless and wearing a necklace. They are both looking towards the left side of the frame. Other people are visible in the background, also sitting in the bleachers.

- | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | J | L | G | T | U | B | H |
| P | A | G | I | T | A | S | T |
| | U | R | B | I | Z | A | R |
| I | N | A | S | A | D | I | T |
| | | F | R | | D | A | X |
| E | K | I | | | | L | O |
| | A | A | | | G | O | R |
| O | R | N | | | | G | I |
| | T | O | | | S | O | |
| L | E | K | N | B | E | R | I |
| | L | E | L | O | L | E | N |
| L | A | R | N | B | E | M | U |



Begiekin usaintzekoak

DELIKATUA, iradokitzailea, detailez betea, apartekoa: Jon Garañoren eta Joxe Mari Goenagaren *Loreak* filma aste honetan estreinatuko da eta sarreraren xentimo bakoitza ondo amortizatuko duzu zinemara joaten bazara.

Ez zen nolanahi sartu Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean ere, eszeptikoenei dudak uxatuz. Maila ugaritako irakurketak eskaintzen dituen filma aurren ikusi dugun gauzarik onenetakoa da.

Ane astero loreak jasotzen hasiko da eta ez du jakingo nork bidaltzen dizkion. Abiapuntu sinple horrekin, elementu ohikoak baliatuz, bikote eta familia harremanez, oroimenaz eta doluaz zer pentsatua ematen duen pelikula egin dute, planteamendu errealistakoa baina egunerokotasunaren haustura txikietan landatua.

Loreek egituratzen dute kontakizuna, izaera polise-mikoa hartzen dute, batzuetan pertsonaien jakin-mina eraginez, besteetan arrisku sentsazioa eta beti istorioak aurrera egiteko aitzakia. Horrelako baliabideak erabiltzean gerta liteke egoera batzuk behartzea, baina ez da hau kasua: dena suabe doa, ia filmak dituen zoom geldo zoragarri horiek bezain goxo.

Momentu batzuetan preziosismoa ukitzen duten planoek ikusleari esperientzia estetiko naïf bat eskaintzen diote. Jarrera estetiko hori justifikazio narratiboaren neurriraino eraman dute, gehiegikeriarik gabe, eta film honetan ia gauza guztiak bezala, oreka da nagusi irudiaren tratamenduan.

Bainaren bat jartzekotan (filmekoak baino lore gehiago jarri ditugu honezkero eta) Egoitz Lasa eta

Itziar Ituño dialogo batzuetan ez zaizkidala behar bezain sinesgarri irudit.

Gainontzean, pertsonaiak ondo egituratuta daude, eboluzio interesgarriak egiten dituzte filmaren pisua batetik bestera pasaz eta pantailan ikusiko ditugun lili buketak bezain ondo bilduta aurkezten zaigu istorio osoa.

80 egunean ikusi ondoren kontuan hartzeko bi zuzendari deskubritu izanaren sentsazioarekin geratu ginenok luzea eta oparoa izatea espero dugun ibilbide baten bigarren urrats sendoa sumatu dugu *Loreak* honetan. ■

Gorka Bereziartua
Mitxelena



POTOLOGUAK

Txintxeta produkzioak
Azaroak 14, ostirala
21,30etan



Fukushiman zientzia eta etika kontrajarri nahian



Arnie Gundersen ingeniari nuklearraren esanetan, orain arte Fukushima bildutako datuekin goiz da baieztapen zientifiko sendorik egiteko, "baina nahikoa da inguruan bizi diren pertsonen artean lanean aritzea zenbat anormaltasun dauden ikusteko".

SAIL HONETAN maiz samar azaleratu ditugu Fukushimako zentral nuklearran gertatu direnak eta gertatzen ari direnak. Datu zehatzak eman ditugu, baina gehienetan leku eta une zehatzetan emandako datu banakak izan dira. Informazioa TEPCO zentralaren enpresa kudeatzaileek kontrolatzen dute, Japoniako Gobernuarekin batera. Informazio ofiziala murrizta da, eta oro har erabiltzen den argudioa da egungo datuekin ezin dela ezer zientifikoki ondorioztatu Fukushimaz.

Baieztapen zientifiko batek denbora behar du; datu ugari behar dira, eta haien joerak garbia behar du izan. Beraz, TEPCOk arrazoi du hemengo eta hango datu banaka batzuek oinarri zientifiko nahikorik ez dutela dioenean, baina ahaztu egiten zaio —nahita— sen zientifikoak iradokitzen duen ondorio batera iristeko datuak bilatu behar direla, ez ezkutatu.

Ildo horretan adierazgarria egin zaigu oso, Arnie Gundersen ingeniari nuklearrak adierazitakoa. Gundersenek dioenez, egia da egun arte argitara emandako datuekin baieztapen zientifiko sendorik egitea ez dela zilegi, "baina nahikoa da Fukushimaren inguruan bizi diren pertsonen artean lanean aritzea zenbat anormaltasun dauden ikusteko".

Gundersenen ustetan agian goiz da jakiteko zenbat jende hil den Fukushiman minbiziaren eraginaz, baina bai minbizia bai beste gaixotasun batzuk izugarri areagotu direla bistakoa da, depresioa handitu dela bistakoa da, ekosistematan arazoak daudela bistakoa da... Etikak diosku arazo larri baten aurrean gaudela, baina etika iristen den lekura zientzia ez da oraindik iritsi, besteak beste inor ez delako datuen bilketa sistematikoa egiten ari. Eta bitartean, Fukushimako agintariek zientzia aldarrikatuko dute etikaren gainetik. ■



Espazioko hotsak entzungai

NASAk *Soundcloud* webgunea ireki berri du. Bertan espazio-ko hainbat soinu entzun daiteke: gure atmosferara heltzen diren irrati-uhinak, *Voyager* ontziaren inguruan dagoen espazio plasmak egiten duen zarata, Saturnoren inguruan biraka dabilen *Cassini* zundak igortzen digun seinalea...

ttiki.com/87759

(Ingeleseaz)

Flores uharteko gizakiaren misterioa argitzeke oraindik

Indonesiako Flores irlako leize batean giza espezie batenak izan daitezkeen hezurak aurkitu zituzten orain dela hamar urte. Ordutik hona igarotako denboran ezer gutxi ikasi dugu *Homo Floresiensis* delakoaz.

ttiki.com/87760

(Euskaraz)

Transistore malgu batek iraultza eragin dezake elektronikan

Kaliforniako Unibertsitateko (UCLA) Xiangfeng Duan-ek zuzendutako lantaldeak, nanomaterialak erabiliz, urrats garrantzitsua egin du gailu elektroniko malguak sortzeko bidean. Zehazki, UCLAko ikerlariek molibdeno sulfurozko transistorea sortu dute, etorkizunean aplikazio ugari erabil litekeena: osasun-egoera neurtzeko sistemak, betaurreko inteligenteak...

ttiki.com/87761

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak
multimedia
aholkularitza
edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Atenas-Oñati-Manaus

LASTER IKUSIKO DITUDAN itxaropena dut, ondo bidez, Manausen, Amazonasen. Neureak ez, baina bere artean senide diren bi ikustera noa. Bata, Atenasen bataiatua, 1860an. Oñatin bestea, 1798an. Lehen ere bai, baina bataiatu ondoren ere, Erdialdeko Amerika eta Amazonas artean bizi dira.

Sokrates famatuaren oho-
rez bataiatu zuten *Socratea
exorrhiza*. “Exorrhiza” hitzak
adierazten du lurretik kanpo-
ra ere sustraiak dituela, triki-
mako sustraiak. Palmondo
bat da, eta oihanean, argia
jaso nahi badu, aldameneko
zuhaitzekin borrokatuz luza
eta luza egin behar, eta
lurrean sendo bermatzeko,
enbor bakarretik sustraiak
luzatuz, oinarria zabaltzen du.
Costa Rican, “palmondo ibiltaria”
deitzen diote. Oihaneke kaosean
adarren bat edo zuhaitzen bat gai-
nera erori eta makurtzen badu,
lurra ukituko duen tokian sustrai
berriak eman eta zaharrak galdu-
ko ditu, eta, hala, bizitoki berri
batera mugitu da.

Iriartea deltoidea da Oñatiko kasta
duena. Bernardo Iriarte, 1735-
1814, Kanarietan jaioa zen, baina
bere aitona, Juan Iriarte Etxebe-



EDUARDO CHACÓN-CC BY SA

Iriartea deltoidea, sustraiak lurretik kanpora ateratzen dituen palmondoa.

rria, oñatiarra omen. Gure Bernar-
do Espainiako erregeen gobernue-
tan aritu zen, batean eta bestean
(Parman negozio arduradun, Lon-
dresen eta Erroman enbaxadako
idazkari, Estatu idazkari, “Consejo
de Indias”-en idazkari...). Itxuraz,
inguruan barra-barra ibiliko zuen
diruaren zati bat ikerketarako
bideratu zuen, eta mezenas lan
horri zor dio geroztik landare
genero batek bere izena izatea.
Iriartea deltoidea ere palmondoa da,

eta, *Socratea*-k bezala, ibiltari izaera
ematen dioten trikimako sustraiak
luzatzen ditu. Abizena, “deltoi-
dea”, delta edo hiruki formako
hostoek ematen diote.

Hiruki ederra, bai, Atenas-
Oñati-Manaus. Atenas, Atena
jainkosaren habia. Oñati, amabir-
jina okupa batek
bereganatua. Manaus,
bertakoen hizkuntzan
“jainkoen ama” esan
nahi duena. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Kare a oso ona dela hainbat aldiz entzuna
dizut. Nire zalantza da ea kare bizia ala hila behar duen.
Bizia bada erantzuna, eskertuko nizuke zergatia esplika-

tzea, ulertzen baitut kare biziak mikrobio-fauna guztia
hilko duela. Eskerrik asko.

Xabier Herrarte (Aramaio)

Kaixo Xabier. Jende guztiak dio kare hila egokia-
goa dela. Kare bizia ura hartzean hiltzen da. Hiltze
prozesuan, gure azalean, ezpainetan edo begietan
kare bizia itsasten bada, zelula horietan dagoen ura
hartuko du bortizki, eta erredurak azalduko dira.
Hori bera gertatuko da lur hezea ukitu beharrean lan-
dareak ukitzen baditu: erredurak. Eta landarea ttikia
bada, hil. Mikroorganismoekin ere neurri batean hori
gerta daiteke.

Hala ere, Euskal Herri atlantikoan dugun hezetasun
maila dela-eta, zabaldu ordurako hiltzen dela esango
nuke. Lurra ukitu ordurako hiltzen dela, alegia. Geurea
baino lurralde lehorragoetan arazo hori larria izan dai-
teke. Geurean ez dut uste...

Edonola, hildakoa nahiago baduzu, kare bizia pila
batean jarri eta lurrez estalita eduki denbora batez.
Inolako probarik-edo egiten baduzu, gustura hartuko
nuke emaitzen berri. ■

Hedy Lamarr, Wifiazen hazia erein zuen zine izarra


VIENA, 1914KO AZAROAREN 14A. Hedwig Eva Maria Kiesler jaio zen familia judu batean. 16 urterekin ingeniari itza hasi zen, baina hiru urte geroago, 1933an, antzerki munduan sartu zen, Max Reinhardt zuzendariaren ikasle. 1937an egin zuen lehen filma: Gustav Machatý txekiarraren *Ecstasy*. Film komertzial batean emakume bat biluzik agertzen zen lehen aldian zen, eta gainera, beste eszena batean, aktore gazteak orgasmo bat antzeztu zuen lehen planoan.

Fritz Mandl armagintza magnateak filma ikusi eta aktorearekin ezkontzea erabaki zuen. Ezkontza gurasoekin hitzartu zuen, Kieslerren iritzia aintzat hartu gabe. Bera ere judu jatorrikoa izan arren, Mandlek armak saltzen zizkien Italiako faxistei eta Alemaniako naziei. Gainera Hitlerren eta, bereziki, Mussoliniren lagun pertsonala omen zen. Mandlen ondoan bizitakoak esklabotza urteak izan ziren. Senarra *Ecstasy*-ren kopia guztiak suntsitzen saiatu zen, aktore karrera uztera behartu zuen eta ez zion etxetik irtezen uzten berarekin batera ez bazen. Kieslerrek ingeniari itza ikasketei berriro heltzeko baliatu zuen itxialdia, eta senarraren bezero eta hornitzaileei adi-adi entzunda, asko ikasi zuen garaiko arma-teknologiari buruz.

1937an Parisera joan zen senarrarengandik ihesi, eta Londresera ondoren. Han Louis B. Mayer, Metro Goldwyn Mayer estudioetako burua ezagutu zuen. Bitxiak saldu eta Mayerren ontzi berean zeharkatu zuen atlantikoa. Lehorratzerako, zazpi urteko kontratua zeukan, baita izen berria ere: Hedy Lamarr.

30 filmetan lan egin zuen guztira, King Vidorrekin, Cecil B. DeMillerekin, Jacques Torneurerekin... eta proiektu handiei ere uko egin zien; ziur Ingrid Bergmanek bihotzez eskertu ziola *Casablanca* (1942) eta *Gaslight* (1944) filmetako rol protagonista errefusatu izana.

Kontua da Bigarren Mundu Gerraren urteak zirela eta, bere erlijioak eta senar ohiaren alboan ikusitakoak bul-



GETTY

Hedy Lamarr (1914-2000) aktore eta telekomunikazio ingeniariak esan zuen: "Edozein neskak izan dezake glamourra. Geldirik geratu eta inozo itxurak egin besterik ez du". Berak glamourra nahi beste zeukan, baina geldia eta inozoa ez zen, inolaz ere.

tzatuta, aliatuen aldeko lanari ekin ziola. *Casablanca* estreinatu zen urte berean, Hedy Lamarrek komunikazio sistema sekretua diseinatu eta patentatu zuen George Antheil konpositorearen laguntzaz. Frekuentzien komunikazioan oinarritutako asmakizunari esker, torpedoak irrati bidez gidatu zitezkeen, etsaiek antzeman gabe.

Goizegi zen; asmakizuna ezingo zen aplikatu sistema elektronikoei sistema mekaniko zaharrak ordezkatu arte. Hala, lehen aldiz 1962an erabili zen Lamarren sistema, Kubako misilen krisialdian. Vietnamgo Gerran ere erabili zuten, baina 1980ko hamarkadatik aurrera eta ingeniari itza zibilaren alorrean atera zioten benetako zukua ideari. Teknologia digitala hedatu ahala, frekuentzien komunikazioak Wifi datu komunikazioa ezartzea ahalbidetu zuen. Eta bluetooth estandarra. Eta GPS sistema...

Ikusmina dutenek jakin bezate Fritz Mandlek ez zuela lortu *Ecstasy* filmaren kopia guztiak ezerezte eta Hedy Lamarren biluztea eta orgasmoa interneten ikusteko aukera dagoela, besteak beste, berak 1942an asmatutako teknologiari esker. ■



Arrastoak

Vatikanoaren jatorri paganoa

GERORA Erroma izango zen hiri zaharraren inguruko muinoetako bat etruskoek erabili zuten, beste inork baino lehenago, hilerri gisa, K.a. VI. mende inguruan. Hildakoak hirietako harresietatik kanpo ehorzteko ohitura zuten, eta haien nekropolia Vatikanoko jainkosak gordetzen omen zuen.

Mende batzuk geroago muinoaren hegian zirko bat eraiki zuten eta, kondairaren arabera, hantxe exekutatu zuten San Pedro. Horregatik, Konstantinok, Erromako lehen enperadore katolikoak, santutegi bat eraikiarazi zuen muinoaren oinean. Ordurako Muino Vatikanoa esaten zioten.

Eta haibat mende gehiago joan ziren aita santuaren jauregia eta San Pedoren omenezko basilika berria hantxe eraiki arte. Horrenbestez, eliza katolikoaren egoitza nagusiak jainkosa pagano baten izena du. ■

JIM REID



San Pedro basilikaren kupula, Vatikanoko muinoaren buru. Vatikanoko Eliza Katolikoaren sinboloa eta bihotza da, baina jainkosa pagano baten izena du.

Nuria Bosch i Roca: «Independentziaren kostua, Espainiako jarreraren araberakoa izango da»

Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia katedraduna da Núria Bosch i Roca (Bigues i Riells, 1955). Kataluniako prozesu soberanistaren gaineko ikuspegi pribilegiatua du gainera, ez alferrik, Trantsizio Nazionalerako Aholkularitza Kontseiluko lehendakariordea baita. Kataluniako Gobernuak eratutako aditu talde horrek diseinatu ditu Estatu independente bilakatu bitarteko pausuk.

| ARITZ GALARRAGA |
Argazkiak: Núria Juan Serrahima

Azken orduko berririk ezean, Kataluniako independentziaren inguruko galdeketa egingo da azaroaren 9an. Prozesu soberanistak aurrera jarraitzen du.

Espainiako Gobernua saiatzen bada galdeketa berri hau gelditzen, inoizko akatsik handiena izango da: independentistak esponentzialki haziko dira. Ez dute prozesua ulertzen. Orain arteko akatsik handiena kontsulta egiten ez uztea izan da: egiten utzi eta katalanei eskaintza erakargarri bat egin izan baliete, itun fiskalaren ildotik, adibidez, ez dut baztertzen independentziaren aurkakoek kontsulta irabaztea. Cameronek egin zuena, alegia. Hemen ere gauzak inteligentzia pixka batekin egin izan balira, arazo hau atzenduko zen belaunaldi baterako; erreferenduma egin eta irabazi. Baina oro har erakutsi dute inteligentzia falta: Estatutaren aurkako sententziarekin, lehenik; gero, orain bi urte, Mas presidentea itun fiskalaren bila joan zenean, ate guztiak itxita. Orduan



cutsi izan balioite erronkari, prozesua geldiaraziko zuten.

Azaroaren 9koa ez da izango hasieran nahi zena. Zer balio izango du baina?

Parte-hartzea altua bada, eta, esaterako, bi milioi pertsonek ematen badute boza, baiezko boza, independentismoaren giharraren beste erakustaldi bat izango da. Balio sin-

boliko handia izango du, azken manifestazio erraldoiek bezala. Mundu guztiari erakutsiko diogu berriz zein den gure nahia.

Hasieran egin nahi zen kontsulta baztertu, eta prozesu parte-hartzaile baten bidez egin galdeketa. Hainbestekoa al da aldaketa, alderdi soberanisten arteko haserrea pizteko?

Ez nuen halakorik espero alderdien-gandik. Aurreko kontsulta egitasmoa aurrera eramán izan balitz, porrota izango zen. Adibidez, mahaia ez lirake osatuko, kontsultaren aurkako bati egokituko balitzaio egotea. Estatuak mehatxu egingo luke parte-hartzaileen aurkako neurriekin, eta jende asko etxean geratuko litzateke beldurrez. Ezin izango zen gutxieneko bermeekin bozkatu. Alderdi batzuen estrategia zen muturrerago iristea, Estatu probokatu eta ikustea zer egiteko gai zen. Baina jendeak merezi ez duen espektakulua eman dute.

Azken batean, ematen baitu punturik garrantzitsuenean ados daudela: kontsulta definitiboa, plebiszitu izaerako hauteskundeak izango dira.

Ikuspuntu juridiko batetik, hauteskunde horiek bertan behera uztea zaila izango da. Lege iruzurra direla esan daiteke, hauteskunde autonomiko batzuk erabiltzen direla beste gauza bat egiteko. Legelariak diote hori pentsaezina zela, jauzi handiegia eman beharko lukeela justiziak. Nik dagoeneko ez dut ezer baztertzén. Gerta daiteke, beraz, Espainiako Gobernuak kontra egitea.

Eginez gero ere, ez dira egiten errazak izango.



Seguru. Zerrenda ahalik eta bateratzaileena bada, hobeto, prozesuari indar handiagoa emango lioke. Hala ez balitz, ez dut uste tragikoa litzatekeenik. Alderdi bakoitzak eraman dezala bere programan bide independentista saiatzeko konpromisoa. Garrantzitsuena da parlamentu berria eratzean independentzia prozesua aurrera eramateko adostasuna.

Emaitzaren arabera izango da jarraitu beharreko bidea, baina, independentziaren aldeko gehiengo argi bat aterata, gero zer egin?

Parlamentu eratu berriak prozesu bat abiatu behar luke, estatu egiturak ezartzeko eta Estatuarekin negoziatzeko, dena aurrera nola eraman daitekeen ikusteko. Denbora eskatzen du horrek. Ezinezkoa da hauteskundeak egin eta biharamunean independentzia aldarrikatzea. Eskozian prozesu horrek urte eta erdi iraungo zuela esan zuten. Baina hori konpondu ondoren, independentziaren aldarrikapena. Estatuak negoziatu nahiko du? Segur aski ez. Orduan gertatuko litzateke konfrontazioa. Kostu bat izango du horrek, noski, baina kostu hori Espainiako gobernuaren jarreraren arabera izango da: negoziatuko balu, asko jaitziko litzateke; jarrera oldarkorragoa badu, aldiz, handitu.

Independentziaren aldarrikapen hori litzateke Espainiako legedia hausteko unea. Zail da irudikatzen orain artean legea urratu nahi izan ez duen Gobernu batek tamainako ariketa egitea.

Gobernua etapak erretzen joan da. Munduari erakutsi nahi izan dio gauzak ondo egin nahi izan ditugula: Estatuarekin negoziatutako erreferendum bat lehenik, ezin izan dugu; Kataluniako legea hartu dugu gero, bertan behera utzi digute. Geure burua behartuta ikusi dugu irtenbide hau hartzera. Eta, noski, hartzen dugu atzean gehiengo handi bat daukagula, demokratikoki aukeratua, parlamentu baten bitartez. Gero gure Gobernuaren baitan jarrera desberdina egongo dira alde bakarrek aldarrikapenaren aurrean. Ez ditut ikusten Unió-ko kideak hori egiten. Convergència-koak ez dakit, agian bai. Ikusi beharko litzateke gainera parlamentu berriaren osaketa.



“Espainiako Gobernua saiatzen bada galdeketa berri hau gelditzen, inoizko akatsik handiena izango da”.

Zerrenda bakarrarekin partiduak lusoago geratuko lirake, baina bananduta joanez gero, Convergència-k botoak galduko ditu, eta irabazi Esquerra-k. Eta Esquerra oso kapaz ikusten dut independentzia aldarrikatzeko.

Eta, askotan egiten den galdera bat, sarri beldurraren argudio gisa: Katalunia independente bat, ekonomikoki bideragarria litzateke?

Nazioarteko ekonomialari prestigio-tsuek ere defendatu dute bideragarritasuna. Gary Becker Ekonomiako Nobel Saridunak, adibidez, edota Nazioarteko Diru Funtseko jendeak. Baldintzak baditu: gaitasun fiskala du, luzez finantzatu ahal litzuke Estatu gisa onartu beharreko eskumen berriak. Handiena gizarte-segurtzaren administrazioa litzateke, pensioak, langabezia, baina dugun gaita-



TERMOMETROA

gerta litekeela, momentu jakin batean, baina izatekotan denbora gutxirako litzatekeela.

Eta gero dago Europar Batasunaren mamua.

Bi eszenatoki aurreikus daitezke. Bata, Batasunean mantendu ahal izatea, sarrera automatikoarekin edo trantsizio epe oso labur batekin. Ez digute esan ezin izango garela Europar Batasunean egon, esan diguten bakarra da sarrera eskatu beharko genukeela. Hori gertatzen ez bada, eta Katalunia Europar Batasunetik kanpo gertzen bada, denbora gehiago beharko da. Aldebiko akordio bat egin daiteke Batasunarekin, ez duzu kide guztien adostasuna behar. Suitzak, adibidez, halako akordio bat du. Horrek ziurtatuko luke salerosgaien zirkulazioa. Eta Europar Batasunean sar daiteke atzeko atetik. Europako Merkataritza Libreko Erkidegoa izeneko erakundea dago, Norvegia, Suitza, Islandia eta Liechtenstein biltzen dituenak. Erakunde horrek ere akordio bat du Batasunarekin, zergarik gabeko komertzio bat egiteko. Katalunia sar liteke erakunde horretan, eta atzeko atetik sartu gero Batasunean. Irtenbideak badaude. Eta, kasurik txarrean ere, Europar Batasunetik kanpo geratuko balitz, ez litzateke geratuko irla bat bezala.

Nik uste dut trantsizio prozesua ez dela oso luzea izango. Europar Batasunari interesatzen zaio Katalunia barruan izatea, arrazoi ekonomikoengatik. Barruan egoteko presionatuko luketen multinazional asko dago hemen, arau guztiak betetzen ditugu, ez da orain sarrera eskatzen duten herrialde horien kasua, hau eta beste egitea eskatzen dietela. Interes ekonomikoek egingo lukete sarrera posible. Eta Espainia ere interesatuta legoke. Bestela, Katalunian dauzkan enpresek muga-zergak ordaindu beharko lituzkete Espainiara joateko. Tarragonan dagoen Repsol findegia, berehala aterako lukete? Ez badute ateratzen, kamioiek ordaindu egin beharko lukete Espainiara joateko. Eta Frantziara joateko ere Kataluniatik pasa beharra dago. ■



sun fiskalarekin geure gain har genezake, kalkulatuta dugu. Eta eskumen berri horien kostua askogatik legoke gaindituta izango genituzkeen sarrera gehigarriekin. Orain defizit fiskal garrantzitsua daukagu, nabarmena da. Sektore espainiar zaleen ere onartzen dute hori.

“Aurreko kontsulta egitasmoa aurrera eramán izan balitz, porrota izango zen”

Hondamen ekonomikoaren motiboak gehiago lirateke harreman komertzialen ingurukoak; esaten da Katalunia independente batek galduko lukeela Espainiarekiko komertzioa.

Orain Kataluniak gehiago saltzen du nazioartean, Estatuan baino. Azken datuen arabera, %57 nazioartean eta %43 Estatuan. Gero eta gutxiago dago Katalunia Espainiako merkatuaren menpe. Askok esportatzen du, ekonomia oso irekia da, eta lehiakor-

tasun handia ematen dio horrek globalizazioaren aurrean. Beste kontu bat: Espainian saltzen dugunetik asko dira kontsumo-produktuak, supermerkatu eta abarrekotan saltzekoak. Erosleak, produktu katalana izateagatik, egin diezaike boikota. Batez ere produktu nabarmengarriek, adibidez cavari, baina produktu asko ez dakizu nongoak diren ere, asko multinazionalak dira. Katalunian dagoelako utziko diote Nestlé erosteari? Saltzen ditugun beste produktu batzuk ez dira kontsumozkoak, bitarteko-ondasun esaten zaien horietakoak baizik, beste enpresa batzuen ekoizpen prozesura doazenak. Enpresari espainiar batek utziko dio Kataluniako produktuak erosteari? Orain erosten baditu izango da merkeagoak direlako, edo lehiakorragoak, edo kalitate handiagokoak, edo garraioa merkeago zaiolako. Espektatiba arrazionalarekin mugitzen den enpresari batek hori egingo duela pentsatzea zaila da. Boikotaren gaia asko landu dute adituek, eta esaten dute produktu nabarmengarriekin

Debekuen gainerik soberanismoa bozkatzera doa

Lerro hauek idazterakoan oraindik ez dago argi azaroaren 9an katalanek botoa eman ahal izango duten ala ez, baina denak iragartzen du igandera arteko egunak tentsio handikoak izango direla.

Lehenbizi estugune hori gainditu beharko dute eta ondoren, plebiszitu izaera izango duten hauteskundeak ate joka ari dira jada. Debekatuko ditu Madrilek hauek ere?

| XABIER LETONA |

AZKAR, OSO AZKAR doa dena Katalunian, batez ere azken hilabeteen eta bereziki azken bi asteetan. Eta azkar doa, Espainian ere ustelkeria auziak bata bestearen atzetik datozelako, PPko agintarien eta, oro har, bipartidismo zaharkituaren itzal bihurtuta. Kataluniako auziak gertaeren bi ubide ditu, bata han bertan eta bestea Espainian.

Artur Mas Generalitateko lehen-dakariak urriaren 14an A9ko kontsulta alternatiboa deitu zuenean, zalaparta sortu zen alderdi soberanisten artean. Espainian kontrakoa. PPk eta PSOEek pozarren jaso zuten iragarpena eta garrantzia kendu zioten kontsultari. Hori ez zen kontsulta ez ezer. “Egin ditzatela mila halako nahi badute”, zioten agintari eta kazetariak Brunete mediatikoaren bozgorailuetatik.

Iragan urriaren 27an Mariano Rajoyk kontsulta inpuernatuko zuela iragarri zuen arte. Zer gertatu da bi asteo tartean? Ustelkeria borborka dariola Espainiari. Lehenengo Caja Madrideko txartel beltzekin, ondoren Angel Acebes PPko barne ministro ohiaren eta Barcenasen B kutxeekin, eta joan den astean Púnica Operazioarekin, non PPko dozenaka kargu atxilotu zituzten ustelkeria leporatuta. Urriaren 25ean –Caja Madrid eta Acebesenaren ondoren– Rajoyk ez zuen uste ezer berezirik egin behar zenik: “46 milioi espainiarren artean ustel gutxi batzuk besterik ez dira”. Urriaren 27an, Púnica operazioaren ondoren, PPren ize-

nean barkamena eskatu zien espainiar guztiei.

Nahi ala ez, ur-laster horien gainean dator Kataluniako kontsulta, eta Katalunia ere ondo zipriztindua atera da, bereziki Pujoltarren aferarekin, baina baita PSCKo Joaquim Nadalen inputazioarekin edo Bartzelonako alkate Xavier Trias eta Josep-Lluís Carod Rovira Suitzako kontu korronteekin zikintzeko saioekin.

Espainiako Gobernuaren inpuernazio eskaera aste honetan aztertuko du Konstituzio Auzitegiak eta baliteke azaroaren 5eko bileran erantzun bat ematea. Rajoyren eskaeraren funtsa zera da: Generalitateak herritarren parte-hartze prozesu gisa aurkeztu duen ekitaldi hori lege iruzurra dela eta, beraz, debekatu egin behar dela, oraingo honek ere dekretuz deitutako lehen kontsultaren helburu bera duelako, baina era desberdinez gauzatua. Espainiako Estatu Kontseiluak ere kontsulta bertan behera utz dezala eskatu dio Konstituzio Auzitegiari. Masek dio ez dagoela inpuernatzeko dekretu edo araurik, baina ez dirudi hori nahikoa izango denik Konstituzio Auzitegiak berau ez debekatzeko.

Konstituzio Auzitegiak debekatu ala ez, ANCK A9n goizeko 9etan bozkatzera joateko deitu ditu herritarrak

Eta gero hauteskundeak

Masen kontsulta berriak lehen unean hautsak harrotu zituen alderdi soberanisten artean, ordura arteko batasun irudia hautsiz. Masek, baina, apurka lortu du soberanismoaren indarra berriz A9aren inguruan egituratzea. CUP hasieratik ados izan da, uzkur hasieran baina berehala baietz esan zuen ERCK eta ICV zalantzan eta zatitua agertu da ia bi astez, baina azkenean kontsultan parte hartuko du.

Konstituzio Auzitegiak debekatu ala ez, ANCK A9an goizeko 9etan bozkatzera joateko deitu ditu herritarrak. 100.000 boluntario mobilizatzeko ditu “*Ara és la hora*” kanpainaren bidez telefono deien maratonia antolatu eta herritarrak parte hartzera deituz. Azaroaren 7an izango da kanpainaren ekitaldi nagusia Bartzelonako Maria Cristina etorbidean.

Era batera ala bestera, datorren igandean independentismoaren beste mobilizazio erraldoi bat ezagutuko da. Eta munduak ikusiko du. Barne kohesioa bultzatzeaz gain, munduak Katalunian zer gertatzen ari den argi ikustea baita soberanisten oraingo helburu nagusia. Bi milioi pertsonen parte har dezakete kontsultan Gabinet d'Estudis Socials i Opinió Pública (GESOP) agentziak egindako ikerketaren arabera. Gehiegi dirudi, baina kopurura horretara hurbildutzea bakarrik garaipen itzela litzateke soberanistentzat. *El País*ek joan den astean plazaratutako inkestaren arabera (Metroscopia), aldiz,



Zenbait inkesten arabera, bi milioi pertsona joan daitezke igandean botoa ematera.

kontsultak bitan banatzen du Kataluniako gizartea, herritarren %49arentzat ekimena ez da egokia eta %44arentzat bai. Botoa emateaz gain, nazioarteari begira erabaki eskubidearen alde prestatutako manifestua sinatu ahal izango dute hala nahi duten herritarrek. Gero NBera eta EBra bidaliko dira sinadurak. Igandean, beraz, izango da zer konstatu eta zer zenbatu.

Baina igandekoa nagusiki urtarrilean edo otsailean deituko diren hauteskunde aurreratueterako txirrista erraldoia izango da eta ordura arte gauza gehiegi izango dira oraindik airean. Lehena igandekoa bera, parte-hartze mailak eta egon daitekeen tentsioak eragin handia izan baitezake hurrengo urrats garrantzitsuan. Hau da, nola aurkeztuko dute soberanistek independentziaren gaia hauteskunderi plebiszitu izaera emateko? CDC eta ERC elkarrekin aurkeztuko dira edo banatuak? Garbi dago batera joateak CDCri egingo liokeela mesede, eta hainbaten ustez boto soberanista biltzeko modu egokiena litzateke. ERCn, aldiz, bada bakoitza bere aldetik aurkezteko iritzi sendoa,

horrela boto gehiago bilduko dute-lakoan.

Noiz aldarrikatzen da independentzia?

Badirudi Podemos oso serio ari dela pentsatzen Kataluniako hauteskunde aurreratueta parte hartzea. Bada 12 eserleku ematen dion inkestarik edo ERCren ondoren bigarren indar politikoa izango litzatekeela iragartzen duenik. Horrek eragotzi egingo ei luke independentistek gehiengo osoa izatea. Kontrako iritzia uste du Podemosi ere, lehenago PSCri bezala, independentismoa eskuetan lehertuko zaiola eta Katalunian alderdia zatitu egingo dela. Orain arte erakutsitako jarrerarekin, Podemos Kataluniaren erabaki eskubidearen aldekoa da eta hori kontsulta batean ebaztea defenditzen du.

Orduan, independentziaren aldeko hautagaitzek irabaziz gero, Legebiltzarrean independentzia aldarrikatuko da, ERCK nahiko lukeen moduan? Ez dirudi. Hori da behintzat Kataluniako Trantsizio Nazionalako Kontseiluak uste duena. Hala adierazi dio ARGIAri Kontseilu

horretako lehendakariorde Nuria Bosch i Rocak: “Ezinezkoa da hauteskundeak egin eta biharamunean independentzia aldarrikatzea”. Hori bai, nazioarteko erakunde nagusien jakinaraziko litzaieke Kataluniak estatu bat sortuko duela eta horri ekingo dio legebiltzar berriak. Espainiak prozesu hori negoziatu nahiko balu ongi, baina bestela Kataluniak bere bidea egiten jarraituko luke eta hilabeteren batzuen buruan independentzia aldarrikatu. ■



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

«Zer nahi dugun bezain garrantzitsua da nola lortu nahi dugun esatea»

Bermeo, 1960. EAJko kidea da. EAEko Herri Administrazio eta Justizia sailburua eta Eusko Jaurlaritzako bozeramailea. Espainiako Justiziaren independentzia zalantzan jartzea arriskutsua dela esan digu. Bere iritziz, epaileen artean denetarik dago. Esaterako, Pablo Ruz edota Eloy Velasco epaileek hartutako neurriak lekuko, PPren gustuko ez direnak.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



EAEKO LEHENDAKARI Iñigo Urkulluk idatzitako *Pazientzia, esperantza eta erabakitasuna* artikulua hizpide abiatu dugu elkarrizketa Eusko Jaurlaritzako eledun Josu Erkorekarekin.

Lehendakariak pazientzia eta esperantza hitzak azpimarratu ditu bere

artikuluari. Pertsonen bertuteak dira, baina demokrazian —eta norberaren askatasunerako bereziki— erabakitasuna da balio duena. Ez al da politika fede kontua bihurtu, nolabait?

Bizitzan eta politikan konpromisoa itxaropenean eta fedean ipini beharra dago. Nahiz eta etorkizunean gertatuko dena ez dakigun, konpro-

misoa etorkizunean gertatzea nahi dugunarekin lotuta dago. Konpromisoak norberak eman behar dituen pausoak eta lortu nahi dituen helburuak gerta daitezen fedea eman behar dio pertsonari. Fede hori aldeztu aurretik baztertzen badugu, ez badugu sinesten pauso horiek emango direla, helburuek jai dute.

ETAk hiru urte bere amaiera iragarri zuela eta hobeto gaudela dio Urkullu lehendakariak. Politikan adituak eszeptikoak dira ordea, eta jendarteak etsiak hartuta dago neurri batean.

Nolanahi ere, objektiboki ukaezina da egungo egoera ordutako baino hobetago dela, gizartean oro har nabarmena da hori. Eraso terroristen arriskurik ez dago, urte askoan zabaldua zegoen beldurra eta hartu behar ziren neurriak desagertu dira. Gizartea lasaigo dago eta elkarbizitza hobeto bideratua. Noski, gizarte guztietan dialektikak eta kontraesanak daude, arazoak ez dira desagertu eta ez dira inoiz desagertuko.

Baina lehendakariak aipatu erabakimena —erabakitze eskubidea—, nola gauza daiteke lege dekretuz galarazia denean. Nola gauditu egungo *statu quo*a 35 urteetan Estatuko legeen arabera politikak gauzatu ostean...

Baina horiek arazo politiko hutsak dira, ez dago markorik non proiektu politiko batek oinarriak ez duen bere helburuak gauzatu ahal izateko. Politikaren berezko zailtasunak dira. Estatu bakoitzak eta herrialde bakoitzak bere esparruak dauzka, baina orain arte...

Arazoaren funtsa zalantzazko trantsizioan ote dagoen gehitu nahi nuen.

Nik ez nuke bat bestearekin lotuko. ETAk bere jardun armatua bazterrean utzi izanagatik ez dugu bada, orain arazo politikoa dagoela deskubrituko. Katalunian ez dute terrorismoaren arazoa izan, baina han ere zailtasun berdinekin topo egin dute beren jardun nazionala bideratu ahal izateko. Edozein testuinguru demokratikoan norberaren proiektu politikoak oinarriak aurkitu ditu beti, hori jokaleku politiko normala da. Zailtasunak eta baldintzak, politikak berez dituen ezaugarriak dira. Ordea, politikan onargarria ez dena da, berez dituen oinarriak gain beste batzuk ezartzea, hala nola indarkeriak giza eskubideak urratzea, ETAk egin duena. Norbaitek uste bazuen ETAk urteetan jardun ondoren zailtasun politikoak desagertuko zirela, bada...

Erabakitasuna hizpide, eskoziarrek beren burujabetasuna erabakitze

erreferenduma gauzatu dute. Zer ondorio atera duzu prozesuaz?

Bada, batzuek behin eta berriz “estatu gabeko nazioek erabakitze eskubiderik ez dutela” esaten digutenean, Eskozian argi eta garbi ikusi dugu, egon ez ezik, egikaritu dela. Non eta Europaren bihotzean, Britainia Handian. Beraz, Espainiako Estatuan hori ukatzeko erabili izan dituzten argudioek ez daukate euskarriarik. Eskoziakoa horien kontrako argudioarik sendoa eta argia izan da, alegia, horrelako kontsulta egitea posible dela Europen.

“Kataluniako ereduaz ari gara, baina prozesuak, ikuspuntu kontzeptual batetik, ez du diferentziarik Ibarretxe lehendakariak bultzatu zuenarekin”

Katalunian kontsulta egingo dute azaroaren 9an. Katalanen bidea baliagarria al da euskaldunontzat?

Lehenengo eta behin, Kataluniako prozesuaren eta guk hemen duela zortzi urte jarri genuen artean ez dut alde nabarmenik ikusten. Kataluniako ereduaz ari gara, baina prozesuak, ikuspuntu kontzeptual batetik, ez du diferentziarik Ibarretxe lehendakariak bultzatu zuenarekin. Oinarri juridikoak eta doktrinalak berdintsuak dira. Horregatik, prozesua antzekoa delako, Madril aurkitu dituen oinarriak antzekoak dira. Auzitegi Konstituzionalaren harresia eta argudioak berberak dira, berauek ez baitira aldatu harrez gero. Noski, hortik aparte Kataluniako gizarte mugimendua indartsua da, hemen egon ez zena.

Kontsulta delakoari ez diozu aterabide baikorrik ikusten, antza.

Berez ez da kontsulta, prozesu partizipatiboa da. Beraiek horrela izendatu dute, eta euren arautegian horrela ageri da. Horrek ez dauka ofizialtasunik, are gehiago, kutsu guztiak kendu nahi izan dizkiote auzitegiarek eraman izan ez dadin.

Zer balio ematen diozu ekimenari?

Une honetan ekimen instituzionala baino ekimen politikoa eta, agian, elektoral dela esango nuke. Ekimenaren atzean emandako urrats batzuek hauteskondeekin zerikusi zutenagoa dute erakundeekin ekimen eta gizarte ekimen batekin baino. Erakundeek legezkotasuna bazterrean uztea eta legetik kanpo aritzea oso zaila da. Ibarretxe lehendakariak legezkotasunarekin topo egin zuenean lege kanpo urratsik ez ematea erabaki zuen. Kataluniako erakunde nagusiek ere gauza bera erabaki dute tirabira eta gorabehera asko izan ondoren.

EAJk gaur egun proposatu nahi duen estatus berria zertan datza? Ibarretxe Planak balio al du horretarako?

EAJk zer planteatzen duen? Gauza bat da bakoitzak dituen oinarri doktrinalak, eta beste gauza bat politika bideragarria egin ahal izateko momentu bakoitzean proposatu daitezkeena. Duela zortzi urtetik hona egoera ez da aldatu, beraz, orduan planteatu zena berriz orain errepikatzea, eduki berekin... Proposamen horrek eduki kontzeptual berdinekin zer-nolako bilakaera izan duen Katalunian ikusirik, bada, halako estrategia bati ekiterakoan Plana ebaluatu beharko da. Pauso hori emateko Jaurlaritza Legebiltzarren zain dago. Autogobernuaren bidean egiteko lehenbiziko urratsak Legebiltzarrean eman behar dira.

EH Bilduk EAJren bidaide naturala behar luke izan, baina Urkullu lehendakariak “Espainiarekin konfiantza eta leialtasuna izanda eman daiteke aurrerapausoa autogobernuan” dioten bitartean, EH Bilduko Hasier Arraizek “Espainiarekiko burujabetza partekatua eta alde bikotasuna ezinezkoa dela” dio. Bi alderdiek bidea egiteko aukerarik ba al dago?

Une honetan alderdi bakoitzaren helburua eta ametsa zein diren baino garrantzitsuagoa da nola jokatu behar den ikustea, hori hemen ikusi genuen eta Katalunian ere ikusi dugu. Aldebikotasuna Madrilgo Gobernuarekin ezinezkoa dela esatea konstatazio moduan ondo egin daiteke. Galdera da: posible al da erabakitze eskubidea egikaritzea orain? Nik

ezker abertzalearen eskutik ez dut ikusi proposamen zehatzik. Egiteari buruz ari naiz: nola? EH Bilduren helburuak zein diren entzuten ditugu, nik neuk horiek ere esan ditzaket. Orain eta hemen, zer nahi dugun esatea bezain garrantzitsua da nola lortu nahi dugun esatea. Espainiako Estatuan bizi garenontzat, abertzale garenontzat, hemen zein Katalunian, galderaren eduki zehatza eta garbia daukatenek ere, horiek ere nola egin galdetzen digute.

“Nola?” Erantzun ezinezkoa duen galdera, akaso.

Nik ez dut ekarpen kualitatiborik entzun inorengandik. Beharbada, Legebiltzarreko ponentziaren eztabaidak ekarriko du erantzuna. Guk arreta eskaini behar diogu gure iraganari eta Katalunian gertatuko denari. Helburuetan ados jarrita, eginbidean nola egin bat ikusteko.

Espainiako Konstituzioaren erreforma proposatu du PSE-EEko Idoia Mendia idazkari nagusi berriak.

Berriz ere: nola? PSEri ere nola galdetzean ez dute esaten formalki zein urrats eman beharko liratekeen horretara heldu ahal izateko. Konstituzioaren erreforma? Ados. Konstituzioak 1. Artikuluan esaten badu “onartzen da Euskadiren eta Kataluniaren autodeterminazio eskubidea”, egina dago. Baina hori gaurtik biharrera ez da lortuko, ezta epe erdira Gorteek hori ahalbidetuko duten ekimenik ere. PP guztiz kontra dago, baita UPyD eta beste batzuk ere. PSOE ez dut ikusten ere jarrera horretan. PSOEren oraingo ikurra estatu federala da, ikur hutsa. Hitz bat besterik ez da, atzean ez dago proposamen sendorik. Nik horri buruz landu dutena irakurri dut. Estatu Federal Berria delako horrek zer-nolako ekarpenik egingo lekiokkeen autonomia erkidegoei ez dut ikusi, ez dut hauen espainiartasuna zalantzan jartzen dutela irakurri, ezta berauen espainiartasunari buruzko goioetarik ere. Orduan...

Orduan, trantsizioan gauzatu zen marko politikoa, baita legea ere, herrien borondatearen gainetik ezarria dago betiko. Eta EAera mugatzen naiz.



“Galdera da: posible al da erabakitze eskubidea egikaritzea orain? Nik ezker abertzalearen eskutik ez dut ikusi proposamen zehatzik. Egiteaz ari naiz: nola?”

Kataluniako eta hemengo abertzaleok beti aldarrikatuko dugu gure burujabetasuna, baita kritikatu ere Estatuaren egitura unitario zentralista. Espainiako Estatuak bere batasunaren inguruan ezarri duen dogma prepolitikoaren aurka jardutera behartuta gaude. Artean, mundua eta esparru politikoa aldatzen ari dira, horri ezin diogu uko egin, ezin dugu etsi, baina jakinik aldaketa horiek ez direla egun batetik bestera lortzen. Legebiltzarreko eztabaidetan sarri entzuten dut: “Lehenik autogobernuaz jardun behar dugu, geure baliabide ekonomiko guztien jabe izateko, ondoren krisi ekonomikoari eraginkortasun gehiagorik ekiteko”. Euskadi independentea egun batetik bestera lortzea posiblea izango balitz bezala. Hau da, nahi dugun estatus politikoa lortu arte ekin, eta horrek emango dizkigun baliabide ekonomikoak erabiliz, bigarren esparrura —esparru omen eraginkorragora— iragatea posible balitz bezala. Gauza bat da planteamendu politiko bat

defendatzea eta beste gauza bat, egun batetik bestera hori lortuko duzulakoan, beste guztia horren menpe jar dezakezula pentsatzea.

EAJri anbiguotasuna leporatu izaten dio ezker abertzaleak.

Nik anbiguotasuna ikusten dut eurengan, areago, isiltasuna jasotzen dut galdetzen dudanean “nola” delakoari buruz. Ni helburuetan ez naiz anbiguo. Abertzale ororen helburua subiranotasun handiena izatea da. Guk Europako estatuak partekatzen duten subiranotasuna nahi dugu guretzat. Baina nola? Nik hori galdetzen diet eta isilik geratzen dira. Anbiguo ni edo EAJ? Ez da bakarrik gure kontua, ez hemen ez Katalunian. “Nola?” da kontua.

Jaurlaritzaren Hitzeman ekimenaren 1. puntuak dio:) ETAren desarmea eta desagertzea. Nola egin daiteke hori, bake eta bizikidetzan parte handiak duen Espainiako Gobernuak esku hartu nahi ez badu?

Egia da, Espainiako Gobernuak ez du aurrerapausorik eman azken hiru urteetan. Jaurlaritzak, berriz, eskura dituen baliabideekin aurrera egin nahi du. Hor kokatzen da Hitzeman ekimena. Gobernu zentralak berak ikusiko du zer egingo duen horren aurrean. Egoera difereentea izanda, orain arteko politika

«EH Bilduren xedeak entzuten ditugu, nik horiek ere esan ditzaket»

berdinekin jarraitzea guretzat errakuntza nabarmena da. Egoera aldatu den heinean, politika egoera berrira egokitu behar luke Espainiako Gobernuak. Guk aspaldi esan diogu hori, baina ez du irizpide politikoa aldatu nahi.

“Autogobernuaren bidean lehen urratsak Legebiltzarrean eman behar dira”

EH Bilduk zalantzan jartzen du Hitzeman. Estatuko Justiziak gatazka dela medio sortutako “etsaiaren” aurkako zigor legedi berezia darabilen bitartean, alferrikakoa omen da.

Guk espetxe politikan eskumenik badugu, baina horren transferentziarik ez, besteak beste, Estatu puntua horrekiko intsumisioa delako. Horiek horrela, hala ere, gauza bat da espetxe politika gauzatu ahal izatea eta beste bat birgizarteratu nahi duen presoari laguntzea. Preso batek espetxe legedian dauden onura arruntak erabili nahi baditu bere bizimodua eramangarriago izateko, erabili ditzala. Horretan Jaurilaritzari ezin zaio eskumenik ukatu. Alegia, nahiz eta espetxe politika gure esku ez egon, hainbat arlotan egitasmo bereziak martxan jar daitezke: gizarte eta lan prestakuntzarako programak, espetxeetako arduradunekin adostuak. Eta horretan ez dugu bakarrik Estatuaren beste jarrera bat behar, behar da ere presoaren artean erabateko askatasuna bakoitzak nahi dituen neurriak hartu ditzan, askatasun osoz. Baina, sarritan, egoera aldatu dela esan arren, preso eta sektore batzuen jarraera ez dela aldatu ikusten dugu.

Hitzeman ekimenaren arduradun Jonan Fernandezek dioenez, guk Hitzeman eskaini dezakegu, baina espetxe politika aldatuko den bermea ezin dugu hitzeman.

Noski, baliabide guztiak ez baitaude gure esku, baina ez daudelako ez dugu ezer egingo? Dena lortu arte ez dugu ahaleginik egingo? Egoera hori da eta horri erantzuten dio Hitzemanek. Guk, jarrera tinkoak batetik eta salbuespeneko jarrera bestetik mantendu nahi dutenen aurrean –jarrera ez-humanoak–, egoera sozio-politiko ahalik eta gehien humanizatzen lagundu nahi dugu, denok lagundu behar dugu.

“Ezker abertzaleak zoru etikoa birdefinitu behar du, pausoak eman behar ditu...” esan duzu zuk. Estatuari ere bere zoru etikoaz galdetu beharko litzaioke. Torturen auziak hor daude, besteak beste.

Hitz horiek, nik Hasier Arraizek politika orokorreko eztabaidan erabili zituen hitzen harian esandakoak dira, testuinguru horretan ulertu behar dira. Berak esan zuen prest zeudela pausoak emateko Bake eta Elkarbizitza ponentziaren funtzionamendua bideragarria izan dadin. Beraz, guk arretaz segituko dugu eurek iragarri dituzten pausoak. Hortik aparte, ez dut uste inork zalantzan jartzen duenik torturak egon direnean gaizki daudela. Gehiegikeriak egin direnean, poliziaren aldetiko gehiegikeriak izan direnean epaitegietan behar bezala epaitu ez direnean, ez dut inor ikusi horiek defendatzen. Zoru etikoaz ari garenean, ari gara iraganean erabili izan den indarkeriari uko egiten diola esan dezan, baliabide politiko gisa eta helburu politikoak lortzeko ez dela inoiz ona izan adierazi dezan. Horri buruz ez dugu alde guztien aldetik erantzun berdina jasotzen. Hor kokatu behar dira batzuen eta besteen arteko diferentziak. Torturak gaizki daudela ukazezina da.

Baina torturen gaitzespenean PPK zer jarrera hartzen du, esaterako?

Nik hemengo PPKo inor ez dut inoiz entzun torturak babesten dituela esaten. ■



VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu



Lantegiak, ikastaroak hitzaldiak, aurkezpenak...

• ERRAIAK

Danele Sarriugarte. Idazleekin solasean Ibaiondo GE, 19:00

• EMAKUMEAK PROTAGONISTA

Ixabel Agirresarobe. Bakarriketa, 1€ Judimendi GE. Azaroak 18, 19:00

• ALEA ARABAKO ALDIZKARIA

Aurkezpen jaia. Azaroak 28

Haurrak eta familiak

• MARIXAREN BASERRIAN

Eneko Etxegarai. 3-8 urteko umeentzat, 1€ Abetxukuko GE: Azaroak 11, 18:00 Arriagako GE: Azaroak 12, 18:00

• IZEBATEKLA

Musika. 1-12 urteko umeentzat, 1€ Ibaiondo GE: Azaroak 18, 18:00 Pilar GE: Azaroak 20, 18:00

• LORATEGIAN

Haurtxoentzako antzerkia 1-3 urteetako umeentzat, 6€ Federico García Lorca antzokia Azaroak 22, 12:30 eta 18:30

• IGANDEAK JAI

Kidam magoa eta esperimendu harrigarriak Zabalgana eskolan, azaroak 30, 17:00

Antzerkia

• NORABIDEAN

Darkabarr taberna. Azaroko astelehen, astearte eta ostegunetan, 19:30

• BAREALDI MAGIKOA

Ttanttaka. Printzipal antzokia Azaroak 12, 20:30

Musika

• Tximela kapitainaren izarrak. Joseba Tapia Aldabe GE: Azaroak 13, 19:00, 1€

• Bidelapurra. Parral taberna Azaroak 18, 20:30

• Berri Txarrak. Zuzeneko emanaldia eta disko sinaketa. Elkar liburdenda Azaroak 26, 18:30

• Lurra. Parral taberna: Azaroak 26, 20:30

Zinema

• FILMAZPIT ZIKLOA

Cockneys Vs Zombies Oihaneder Euskararen Etxea Azaroak 13, 19:00

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

«Parte-hartzeak ekarriko du aberastasunaren banaketa»

Langileak enpresan partaide izatearen garrantziaz asko entzungo duzu aurrerantzean. Hori izango omen da gakoa lehiakortasuna irabazteko. Ekosistema oso bat bada hau bultzatzeko interesa duena: Europako erakundeak, Eusko Jaurlaritza, unibertsitateak, ikerketa zentroak, enpresak... Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza diputatu Jon Peli Uriguenek azaldu digunez, “lurraldeko estrategia da, ez da enpresa batzuen edo erakunde baten nahia”.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

Langileen parte-hartzeaz ari garenean, aipatzen dira enpresarentzat dakartzan onurak (berrikuntza, lehiakortasuna) eta langilearentzat dakartzanak (asebetetzea, erabakimena). Baina lurralde osoaren mesedetan ere bada.

Berrikuntza sailetik bi ildo bultzatzen ditugu: pertsonekiko konpromisoa eta lurraldearekiko konpromisoa. Pertsonen asebetetzea lantzea nahi dugu, horrek lurraldeari ere ekarriko diolako lehiakortasuna, koherentzia eta saretzea.

Gainera, ekonomia justuago baterantz pausoa emateko modua da. Krisi garaian aipatzen da askotan parte-hartzea, eta pentsa daiteke estuasunetik ateratzeko soilik jotzen dela langileengana baina uste dugu momentu positiboetan ere landu behar dela langileen parte-hartzea. Etekinetan parte-hartzea, baina baita ere erabakietan, jabegoan... Horrek ekarriko duelako aberastasuna banatzea, ardurak eta erantzukizunak ere banatzen diren heinean.

Zein da Gipuzkoaren argazkia gai honetan?

Gipuzkoaren ezaugarrietako bat da oso saretua dagoela. Eragile guztiek euren artean oso harreman estuak dituzte, eta harreman estu horiek sendotzen joan behar dute. Eta horretarako pertsonak dira garrantzitsuak. Enpresa edo erakundeetako pertsonak asebeteta badaude,



“Gipuzkoan badiugu baldintzak, beraz, egin dezagun. Eztabaida foroak eta proiektu zehatzak martxan jartzen jarraituko dugu”.

horrek ekarriko du lurraldearen garapen orekatuago bat. Hori da bilatzen duguna, Gipuzkoa izan dadila aitzindari proiektu berritzaile horretan: berrikuntza soziala, enpresen arteko saretzea, dimentsioa irabaztea enpresak lehiakorrago izateko...

Gipuzkoan badago kooperatibagintzarako kultura bat, lan arduren banaketan izaera bat. Lurraldeko enpresak askotan aitzindari izan dira (bai kooperatibak eta baita

Elkarte Anonimo Laboralak). Gipuzkoan enpresa txiki eta ertainak dira gehienak. Eta datuetan ikusten da hauetan zailtasunak daukela langileen parte-hartzea sustatzeko. Eta kooperatiba handietan ere badago izaera hori, baina gero benetan parte-hartzea praktikara eramatea kosta egiten da.

Baina badago lehengaia, pertsonek prestatuta daude. Erakundeon artean ere badago estrategia bat langileen parte-hartzea bultzatzeko.

Nola sustatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak enpresetan parte-hartzea? Eztabaida sustatu nahi dugu, proiektuak garatu eta martxan jarritako proiektuak gizarteratu eta ezagutzera eman. 2013an diru laguntza lerro bat ireki genuen langileen parte-hartzea sustatuko zuten proiektu teorikoak garatzeko. Aurten jarraitu dugu teoria mailako proiektuak bultzatzen eta gainera iaz diseinatutako proiektu batzuk martxan jartzeko beste diru laguntza lerro bat ireki dugu. 2014an guztira 3 milioi euro inguru bideratu ditugu laguntza hauetara: 1,5 milioi proiektuak maila teorikoan garatzeko eta beste 1,6 milioi euro proiektuak martxan jartzeko. Iaz baino %33 enpresa gehiagok hartu dute parte aurtengo deialdian.

Zerga sisteman ere jarraituko dugu borrokatzen langileen parte-hartzeak hobariak izan ditzan. Iaz Ogasun sailarekin eta Gipuzkoa Berritzen elkartearekin elkarlanean landu genuen proposamena. Bi aldeei onurak ekartzea da gure helburua: alde batetik enpresari, eta bestetik langileari. Planteamendu hau gure foru arauan sartu genuen baina EAJ, PP eta PSEk kontraerreforma fiskala egin zuten eta neurri hauek bertan behera geratu ziren. Baina atzera martxan jartzen saiatuko gara, uste dugulako benetan apustua egin nahi bada parte-hartzearen alde, baliabideak ere jarri behar direla sustatzeko.

Hainbat foro ere jarri dituzue martxan enpresarien ordezkariekin, sindikatuekin... bada gutxieneko adostasunik lanerako?

Denok ados gaude gaia oso garrantzitsua izango dela etorkizunean

«Enpresa askoren orain arteko jarduna aldatzera dator»

ALDUNDIAK antolatuta “Gipuzkoan elkarlanean partaidetza eraikitzen” jardunaldiak egin ziren Donostian, urriaren 23 eta 24an. Jende ugari bertaratu zen entzutera, bai enpresa mundukoak, unibertsitatekoak, erakundeetakoak... Uriguenek oso positibo baloratu ditu: “Gai hau enpresa askoren orain arteko jarduna haustera ez, baina aldatzera dator. Adierazgarria izan zen lau sindikatuak mahai berean egotea honi buruz zintzoki eztabaidatzen. Britainia Handiko aholkulari independentea edo Europako Batzordeko kideak egotea garrantzitsua izan zen, Gipuzkoa erreferente egiten duelako parte hartzearen gaian”. Horrelako foro gehiago antolatzeko konpromisoa hartu dutela ziurtatu du eta gaineratu: “Jardunaldietan ikusi zen pertsonak ahaldundu behar ditugula eta pertsonetan zentratu behar dugula ahalegina, pertsonok osatzen ditugulako erakunde guztiak, eta erakundeon lehiakortasuna hortik etorriko delako”.

Jardunaldiak osorik bideoz ikus-entzungen izango dira laster www.gipuzkoapartaidetza.net webgunean.

enpresen lehiakortasuna bultzatzeko. Moduetan eta dinamiketan daude eztabaidak. Jardunaldietan argi ikusi zen kezka nagusia zein den sindikatuen aldetik: ezin ditugula bereizi langileen parte-hartze proiektuak eta lan harremanen esparrua. Lan erreformak langileak hein batean babesgabe utzi ditu eta hori ere kontuan hartu behar da. Eztabaida integratzailea izan behar da. Aldunditik ere ados gaude, langileak integratu nahi baditugu enpresaren dinamiketan, lan erreforma ere eztabaidagai jarri behar da, benetako aurrerapausoak eman nahi baditugu. Denak izango dira beharrezko: sindikatuak, enpresa elkarte oro, teorizazioan lan handia egin duten unibertsitateak... zailtasunak badira baina badago borondatea aurrera egiteko.

Enpresa bakoitzean parte-hartzea era askotakoa izan daiteke (jabetzatik hasi eta lanpostuko erabakietara mugatzen deneraino). GFAk zer parte-hartze mota bultzako du?

Jardunaldietan zalantzan jarri zen langileek enpresaren etekinetan bakarrik parte-hartzeak norainoko onurak ekarriko lituzkeen. Uste dugu hau ez dela etorkizunerako interesgarria, ez duelako benetan langileak asebetetzen, ez duelako langilearen konpromisoa sustatzen. Erabakietan parte-hartzea garrantzitsua da. Hortik eratorriko da langileak jabetzan izan dezakeen parte-hartzea. Baina enpresa bakoitza kasu bat denez, guk parte-hartze mota guztiak bultzako ditugu. ■



Heufcara
Ialgui adiplaçara

Berce gendec vñteçuten
Ecin scriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Euganatu cirela.

**Hizkuntzak herri
egiten gaitu**



«Gakoa historia klinikoa euskaraz lortzea da, herritarrek eskatzea»

Osakidetzaren euskalduntzean, euskara laneko hizkuntza izatea premiazko ikusten du Aitor Montes mediku galdakoztarrak. Aramaioko familia-medikua da Montes, eta ahozko harremanetatik harago, idatzizkoa euskalduntzeko beharrean dabil. Pazienteen osasun ibilbidea biltzen duen historia klinikoa euskaratzea da gakoa bere ustez.

Testua eta argazkiak:

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

Lehen aldia izan da: erradiografia baten emaitzak bi hizkuntzetan jasotzea lortu duzu.

Bai, eskabidea egin eta hiru astetara jaso genituen. Hasieratik etorri da gainera txostena bi hizkuntzetan. Gertatu da Donostian, adibidez, pazienteak alta txostena erdaraz ikusi eta euskaraz eskatzea. Itzulpena handik hamar egunetara heldu zitzaion. Erradiografiarena desberdina da. Jatorriz ele bitan datorrenez, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere bada. Helburua Osakidetzak irudi proba guztien emaitzak ele bitan eskaintzea izan beharko litzateke.

Eskatzeko premiarik egon barik.

Hori da. Pazienteak edo medikuak ez du zertan eskatu. Erakunde publikoa da Osakidetza, eta bere idatziak derrigorrez egon behar dira bi hizkuntza ofizialetan. Europako legediak, EAEkoak eta Espainiakok horrela agintzen dute.

Zure kasuan, emaitzak euskaraz eskatzea proposatu zenion pazienteari?

Ez, ez. Nik legea bete behar dut. Erakunde publikoan egiten dut lan

eta bete behar ditut medikuon kode deontologikoa eta legea bera; ezin dut legea urratu.

Euskara planak, legeak... hor daude. Berririk ez dela behar diozu.

Daukagunarekin, nahikoa eta soberan. Batez ere Europako goi mailako araudiagatik; loteslea da, bete egin behar da eta kito. Osakidetzak ez badigu eskaintzen, eskatu egin behar dugu. Nire mezua hori da; euskaltzaleok, eskatu. Joan osasun zentrorra, Elebidera, Behatokia...

“Osakidetzak erantzukizuna dauka, bai, baina kuriooa da jendeak ez duela osasun arreta euskaraz eskatzen”

Eskatu proba osagarri guztien txostenak ele bitan, edo euskara hutsean, gura baduzu. Ez erabiltzaileek bakarrik; osasun langileok ere proben txostenak ele bitan eskatu behar ditugu. Gure betebeharra da pazientei ematen diegun zerbitzua hobetzeko.

Odol analisien emaitzak euskaraz jasotzea ere eskatu izan duzu.

Oraindik itxaroten gabiltza. Nik dakidanez, aplikazio informatikoak egokitu behar dituzte horretarako. Eskatu bai, eta nik bakarrik ez, Bizkaiko Medikuen Elkargoak ere eskatu zuen. Pribatutik eskatuz gero ematen ditzkizute analisiak euskaraz. Pribatuan bai, baina publikoan ez. Eta 31 urte dauzka Osakidetzak.

Lan handia al litzateke Osakidetzarentzat?

Berez ez. Euskara teknikoan trebatzeko prestakuntza beharko genuke. Hori erakundearen erantzukizuna da. Beste bidea itzulpen lana da. Horretarako, beharbada, itzultzaile edo euskara teknikari gehiago beharko da; hori ere erakundearen erantzukizuna. Bestalde esango dizute, “euskara tekniko oso zaila da”. Ez. Hizkera medikoa ez da egun batetik bestera jasotzen, gaztelaniaz ere ez. Ospitalean ikasten duzu, beste medikuengandik. Traumatologoen txostenak irakurtzen dituzu eta horrela ikasten duzu. Euskaraz ere, ikastaroa egin, eta espezialisten euskara tekniko elkarren arte-

ko harremanean ikasiko genuke. Erraz.

Osakidetzako langile euskaldunen kopurua traba izan daiteke?

Bai, gutxi gaude eta. Hizkuntza eskakizuna erizainen %40 inguruk dauka. Medikuen artean %25ak bakarrik. Bestalde, 45 urtetik gorako osasun langileak ez daude hizkuntza eskakizuna edukitzera derrihortuta. Baina, hor badaukagu abantaila bat. Osasun langileon adinaren batez bestekoa 55 urte da. Hortaz, bost-hamar urte barru asko erretiratuko dira, eta euren ordez langile elebidunak ipiniz gero, kito, lortu duzu Osakidetza erdia euskalduntzea.

Orduan, belaunaldi berriekin, berez euskaldunduko da Osakidetza?

Etorriko dira langile euskaldunak, baina lan hizkuntza gaztelania bada, azukre koskorra kafean bezala, eurak ere giro erdaldunean urtuko dira.

Zelan euskaldundu giroa, orduan?

Proba osagarrien emaitzak euskaraz bidaltzen hasi behar gara. Aplikazio informatikoak euskaraz jarri, formazioa euskaraz eskaini, eta gero zirkuitu euskaldunak sortu beharko dira. Hau da, lehen arretatik hasita, kupo elebidunak sortu beharko lirateke. Herri batean herritarren erdiak gura badu osasun arreta euskaraz, kupo erdiak izango dira euskaldunak. Astiro-astiro euskal pazienteak mediku horiengana bideratu beharko lirateke. Gero, espezialista euskaldunak identifikatu, trebatu, eta zirkuituan sartu. Ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango lirateke zirkuitu horietan.

Borondate kontua dela diozu.

Zuena ere bai, e? Osakidetzak erantzukizuna dauka, bai, baina kurio-soa da jendeak ez duela osasun arreta euskaraz eskatzen.



“Etorriko dira langile euskaldunak, baina lan hizkuntza gaztelania bada, azukre koskorra kafean bezala, eurak ere giro erdaldunean urtuko dira”.

Kexak ahozko arretara bideratu dira agian?

Gehien jota hori. Euskararen normalizazioan kristoren aurrerapausoak eman dira hezkuntzan, hedabideetan... Esparru horiek lortu ditugu. Herri administrazioan ere, astiro, baina udal askotan langileak elebidunak dira. Osasun arretan, oster, euskaltzale izan eta osasun analisiak erdaraz jaso arren, inork ez du ezer esaten.

Euskalgintzak arlo honetan kale egin duela uste duzu?

Euskalgintzarentzat osasungintza guztiz ezezaguna da. Ez dute Osakidetza ezagutzen; nola eratzten den, barne antolakuntza... Zehar-kaezineko edo ahazturiko gauza bat da, eta ez dakite nola jokatu, edo horrela ikusten dut nik.

Osasun langileek badaukazue OEE Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea.

Orain 30 urte sortu zen. Aldarrikapen-lana baino gehiago, elkarteak corpusa sortu du. Saio klinikoak, hizkera teknikoak, gidaliburuak... Hori eratuta dago, ez litzateke hutsetik hasi beharko. Kontua da hori errealitate bilakatzea, sortuta dagoena erabiltzea.

Murrizketek eragin al dute?

Jakina. Logikoa da pentsatzea ordezeko asko gazteagoak direla eta euskaldunak izan daitezkeela. Nagusiak erretiratu egin beharko lirateke, eta gazteak sartu. Kontrako norabidean goaz. Osakidetzako giza baliabideetako buruak eta sindikatu medikuek medikuen erretiroa 67 urtera arte atzeratzea sinatu dute. Horrek ez du ezer laguntzen.

Babeslea: EMUN



emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA


 HIZKUNTZA
ZERBITZUAK


 KULTURA
ZERBITZUAK


 ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK


 PARTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.eus



“Erakunde berri bat sortu behar da, euskalgintzaren eta osasungintzaren artean zubi-lana egiteko. OEEko medikuen eta legelarien aholkularitza izango luke”.

Murritzketen ondorioz, gainera, baliabiderik ez badago...

Egoera aldatzeko zein pauso egin behar lirateke?

Osakidetzak, edo presioa igartzen du, edo ez du ezer egingo. Kexatzen hasiz gero, lortuko da. Baina jendeak eskatu egin behar du. Anbulatorioak bete, ilaran ipini, eta kexatu. Gaur egun, teknologien bidez, aukera asko dauzkagu mobilizatzeko, militantzia kontzeptua aldatu egin da. Hor dauzkagu Facebook, Twitter, whatsappak, e-postak... Mezuak oso bizkor zabaltu ditzakegu. Osakidetzan edo Osasunbiden kexa bat nori eta nola zuzendu jakinez gero, erraza da. Nola eskatu ekografiak euskaraz? Hara, bada nik badaukat testua, legeak aipatuta eta guzti. Testua ebaki, itsatsi eta nire osasun zentro-ra joan. Zabaltu, katea egin.

Horretarako talde eragilea beharko da.

Herritik sorturiko ekimenak behar ditugu. Erakunde berri bat sortu behar da, euskalgintzaren eta osasungintzaren artean zubi-lana egiteko. OEEko medikuen eta legelarien aholkularitza izango luke.

Osakidetzak kasu egingo al luke?

Ikaratuko litzateke. Bai, benetan. Oraindik jendeak ez du eskatu. Armaion ekografiak eskatu ditugu, eta lortu ditugu. Beste herrietan zergatik ez? Hasi eskatzen. Pentsatu zer lortu daitekeen beste edozein herri-

“Osakidetzak, edo presioa igartzen du, edo ez du ezer egingo. Kexatzen hasiz gero, lortuko da. Baina jendeak eskatu egin behar du. Anbulatorioak bete, ilaran ipini, eta kexatu”

tan hiruzpalau osasun langilek eskatuko balute herritarrekina batera. Egin, argazki bat atera eta prentsara bidali. Sare sozialetan zabaltu. Eskatu. Di-da batean egin daiteke, borondatea egonez gero.

Zuk esana da: “Osasun arloa euskaldunduko bagenu, euskara salbatuko genuke”.

Mediku onak, ez euskaldunak

“Hori mito bat da. Irakasle onak behar ditugu; eta esan ikastolan, matematikako irakasle oso ona aurkitu dugula, ez dakiela euskaraz, baina matematika klase oso onak emango dituela. Oso ondo: ‘Inportanteena irakasleak dira, ez ikasleak’. Bada ez, inportanteena ikasleak dira. Kasu honetan gauza bera, inportanteena ez da medikua, osasun arreta bermatzea baino. Paziente, erabilitzailea da inportanteena. Paziente ardatza da, Osakidetza lerro estrategikoa. Hori da kontua: Kalitatezko osasun arreta pazientearen hizkuntza eskaintzen dena baino ez da. Hori mundu osoko literatura medikoan onartzen da. Pazientearen segurtasuna ere hor dago: batez ere adineko jendea, adimen urrikoak, haurrak, ictusa jasan dutenak... egoera estuan daude, ahuldade egoterran, eta horiei guztiei euren hizkuntza hitz egin behar diezu. Arriskuan egon daitezke ez badizute edo ez badiezu ondo ulertzen”.

Gakoa da osasungintza. Hezkuntza eta hedabideetan lortu dugu. Pentsatu orain, osasun zentro guztietan eta ospitaletan lan hizkuntza euskara dela eta zerbitzu guztia euskaraz eskaintzen dela. Ospitalean egiten den hizkuntza ez da galtzen. Ez hemen, ez inon: osasun langileon lan hizkuntza dena ez da desagertzen. Esparru hori konkistatu behar dugu eta erabat euskaldundu. Eskubide aldetik, eta kalitate aldetik ere bai. Gakoa da historia klinikoa euskaraz lortzea. Eta gakoa da herritarrek eskatzea. Horretarako, auzolana eta antolakuntza behar dugu. Horrela izan da beti euskalgintzan. Begira ikastolak, hutsetik sortu ziren, legearen aurka. Atera kontuak: orain legea daukagu alde. ■



Iruña-Veleia Argitzeko Batzordeak diru bilketa abiatu du datazioak egin ahal izateko

EUSKARAREN JATORRIA elkarteko Iruña-Veleia Argitzeko Batzordeak sei katiluko bilduma prestatu du diru bilketa egiteko asmoz. 3.000 euro jaso nahi dituzte Europako laborategi batek idazkun bat noizkoa den zientifikoki datatu dezan.

Batzordeak adierazi duenez, grafitoak oraindik noizkoak diren baieztatu gabe dago eta haien

asmoa horretarako baimena lortu eta Europako arkeometria laborategi batean adreilu baten datazioa egitea da. Horretarako behar diren 3.000 euroak biltzeko katiluak eros daitezke (bakoitzak 15 euro eta seiak erosiz gero 80 euro) edo kontu korrontean dirua sar daiteke. Informazio gehiago nahi izanez gero: <http://euskararenjatorria.net/?p=2236>



Katiluak 15 euroan salduko dituzte. Batzordearen ustez, ezkerreko idazkunak "Neu Veleia Gorin bizi naiz" esan nahi du eta eskuinekoak "Lurra, sua".

Bahea

Galder Unzaluk uriola.info-n esanak:

"Errealitatea aldatzen doa, eta esango nuke Bilbon errealtatea aldatzen ari dela kasu honetan ere. Agian desioak eta errealtatea nahasteko arriskuan eror daiteke bat. Agian. Nolanahi, bada errealtate neurgarri eta errepikakor bat: mintzaleku askotan euskara entzuten da behin eta berriz, nortzuren eta gurasoen zain (jabeak zein bezeroak) dauden haur eta umeen eskutik.

Gertatu ahal zaizu ume hegoamerikarrekin, ume afrikarrekin, txinatarrekin zein magrebiarrekin. Batzuetan anai-arreben artean jolasean euskaraz, bestetan gurasoei hitzen bat esaten (adarra jotzen edo jakituria erakusketetan), harako bestean umea euskaraz kantari ari dela, honakoan zuri sakelakotik euskaraz entzun eta korrika zuregana datorrela edozer galdezka".

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Alprojak eta lapurrak

ESPAINIAKO ESTATUKO HERRITARRAK egunero jasaten ari dira politikari eta enpresarien ustelkeriaren izeberg punta baino ez den espektakulu lotsagarria. Krisiak jendartearen sektore ahulena erasotzen zuen bitartean, kapitalismoaren austeritate politika ezarri dutenak barrabaskeriak egin eta diru-kutxa publikoak lapurtzen aritu dira. Esanguratsuenak azpimarratzearen —euskal herritarren poltsikoan ere eragina baitauka—, hortxe daude Gurtel kasua, Barcenak, Mata, Fabra, Urdangarin-Borboi, Bankia, Rato eta Blesa, Pujol familia, Granados eta beste 51 delinkuente, EEE azua eta abar. Urtean 40.000 milioi euro lapurtu dituzte, ogasunari iruzur eginda, paradisu fiskalak erabiliz, txartel opakuen bidez, edota kontratu publikoek "kosk" egiten lortutako komisiorekin. Lapurtutako diru publiko horrekin, euren kontu pertsonala loditzeaz gain, luxuan bizi izan dira alproja horiek. Euskal Herrian, zorionez, ustelkeria ez da hain basatia izan. Hala ere, gogoan izan behar ditugu Nafarroan CAN afera eta EAEn Bidegi, Epsilon eta Hiriko kasuak.

Eta bitartean, ustelkeria gehien pilatzen duen PPreko gobernuak 10.000 milioi euro inbertituko ditu armamentu programetan. Abuztuan 883 milioiko kreditua esleitu zuen armak erosteko. Bankuek, krisia gorabehera, dirua irabazten segitzen dute (BBVak 1.929 milioi euro irabazi ditu aurten iraila bitartean). Gobernu horrek berak onartutako aurrekontuetan ordea, menpekotasuna duten 315.000 pertsona alboratuta geratu dira. Caritasek salatu du herritarren laurdenak (ia 12 milioi lagun) bazterketa soziala sufritzen duela, lanik, osasun zerbitzurik eta etxebizitzarik gabe.

Zer jendarte da honakoa? Sistema kapitalistak sortutakoa: lapurreta, ustelkeria eta desberdintasuna sustatzen duena. Jendarte eredu hau errotik aldatzea beste irtenbiderik ez dago. Herritarrek politikari ustelak eta lapurrak etxera edo kartzelara bidali behar dituzte, eta exijitu behar diete itzultzeko lapurtutakoa. Hipotekaturik bizi den gure gazteriak gida-tu behar luke aldaketa erradikal hori.

Juan Mari Arregi



Dogan Güres hil da, Turkiako kurduen zanpatzailea

88 urterekin hil da Ankaran Dogan Güres jenerala. Berekin eramanez 1990eko hamarkadan PKKren kontrako borrokaren aitzakiatan militar turkiarrek –OTANen egituren barruan– Kurdistanen burutu zuten gerra gupidagabearen sekretu handiak. Kurduen kontra kontrainsurgentziatzko gerra nola antolatu ikasten Espainian ere ibilia zen.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GOGORREN ARTEAN GOGORRENA, bortitzena, ausartena izan omen zen Dogan Güres jenerala Kurdistanen Langileen Alderdiaren (PKK) kontrako borrokan. Hala azaldu du Ricardo Ginés kazetariak Bartzelonako *La Vanguardia* eskaini dion hil-kronikan. “*Enemigo número uno del PKK*” ipini dio egunkariak titulua albisteari, mamiak erakusten duen pertsonalitatearen soslaia lausotuz, baina zuzenago ipini zezakeen Turkiak 1990eko hamarkadan Kurdistanen burutako sarraskiaren ardura-dun nagusietakoa izan zela.

“1994a arte -idatzi du Ginésekin Turkiaren batasunarentzako mehatxutzat zeukanaren kontra antolatutako gerrak eragin zituen milaka hildako, milaka desagertu, hiru milioi inguru kurduren ihesa eta 3.000tik gora herri eta herrixkaren suntsiketa. Ankarako Estatu Gorenetik Güresek edukitako aginteak ez du pareterik izan krudeltasunean Turkiaren historia modernoan. Güresek bere herentzia berunezko hizkitan izkiriaturik utzi du”.

Ingeleseko Wikipediak, iturriak ongi dokumentatuta dauzkan “*Turkey-PKK conflict*” sarreraren, zehazten ditu gerrak eragindako biktimak. Giza eskubideen aldeko erakundeek diote, suntsitutako herriez eta ihesibidalitako milioika jendeez gain, 1984 eta 2008 artean bortizkeriaz

hil direla 5.000 turkiar eta 35.000 kurdu, hauen artean 18.000 zibil. Beste 17.000 gehiago desagertuta daude eta 119.000 herritar kurdu atxilotu dituzte urte horietan Turkiako agintariek.

Tarte horretan, 1993an, hasieran marxista-leninista zen PKK-k bere argudioak aldatu zituen eta adierazi bere asmoa ez zela Turkia zatitzea, Abdullah Öcalan liderrak argituz autonomia zabal bat negoziatu nahi zuela. Honek ez zituen aldatu, ordea, militar turkiarren planak.

Öcalanek proposatutako aldaketa eta negoziaketaren aurrean, hil berri den Güres jeneralak esan zuen: “Turkian arrisku separatista dago. Öcalanek esandakoak engainatzeko erabilitako hitz koiunturalak baino ez dira. Gainera, Turkia zatitzea nahi dute AEBek. Eta Europar Batasunak ere Turkia ahulagoa nahi du. Eta laguntzen al digu OTANek? Batere ez”.

Güres ziur zegoen denek gakotu nahi ziotela zintzurra Turkiari, Siriak eta Irakek PKKri lagunduz, Iran ere kontra.... eta OTANek ez ziola nahikoa laguntzen Turkiari. Hitz egiteko modu bat besterik ez zen, zeren eta gero OTANeko gobernuak eskuratu zituzten militar turkiarrei Kurdistaneko ofentsiba handia burutzeko armak, oso

Turkiako Gobernuak zabaldutako argazkian, armadako soldaduek daramate Dogan Güres jeneralaren hilotza urriaren 15ean Ankarako karriketan barrena. Azken agurra egiten dauzka aurrean herrialdeko agintari nagusiak, militarrek bezala zibilak, denen buru dela Recep Tayyip Erdogan lehendakaria. Güres jenerala ageri den argazki txikia CNNk hedatua da. Istanbulen *Daily Sabah* guneak gizon honen lanaz idatzi duenez, Güresen bultzadaz Turkiako armada berezitu zen terrorismoaren kontrako borrokan, aldi berean pisu handiegia hartuz herrialdearen ekonomian eta bizi sozial osoan. Giza eskubideen urraketez egin zaizkion kritikez gain, PKKren kontrako ofentsibak alderdi hau ahuldu bai baina aldi berean suntsitu zuen kurduak Turkiako estatuarekiko eduki zezaketen konfiantza eta militarrek kriminalitatearekin antolatutako elkarlanak kutsatu zituen luzarako Turkiako aginte guztiak.

merke gainera, Güresek aitortu zuenez beranduago. Hala, Holandak eman zizkien ibilgailu blindatuak, AEBek helikopteroak, baita M-60 eta Leopard tankeak ere...

Gero Güresek berak *low intensity warfare* (intentsitate ahuleko gerra, kontrainsurgentzia edo gerra berezia) ikasteko bisitatu zituen horretan berezituta AEBek dauzkaten egitura militarrek, eta baita Espainia ere. Hori baitzen 1990 aurretik, ez da zaila jakiten zein jeneral espainiarrekin hitz egingo zuen borroka antiterrorista antolatzeko mekanikaz.

Gerra zikina azpi-kontratatu

Kurdistanek 1990eko hamarkada hasieran nozitu zuten berunezko aroaren zertzelada adierazgarriak eskaintzen ditu Jean-Louis Briquetek “*Milieux criminels et pouvoir politique: les ressorts illicites de l'état*” (Kriminalitate antolatua eta aginte politikoa: estatuaren tresna ezlegezkoak) liburuan. “*Les bandes ‘en uniforme’ en Turquie*” atalean kontatzen du nolaz 1991tik aurrera militar turkiarrek PKKren kontrako operazio asko *azpi-kontratatu* [jatorrizko frantsesean *sous-traitance*] egin zituzten kriminalitateari lotutako taldeei.

Tansu Ciller lehen ministroak PKKren kontrako gerra azkar



bukatzeko presa zeukanez, Güres jeneralaren eta honen lerro gogorra bermatzen zuten militarren esku utzi zuen kontraintsurgentziatzko borroka.

Militarrekin, alde batetik talde paramilitar ultra-eskuindarren lana sustatu zuten. Bestetik, kurduen arteko zenbait tribu hautatutako PKKren kontra herritarren miliziak antolatzea babestu. Hamarkada bukaerarako 100.000tik gora kide armatu omen zeuzkaten milizia antiterroristok, Ankarako armadak eskupean pagatuak.

Herrietako zaindariak (*korucu*) deitu milizion antzekoak sarritan erabili dituzte kolonialistek beren gerretan. Gerra bereziaren teoriko nagusietakoa izan den Frank Kitso-

nek aipatzen ditu Kenyan britainiarrek erabilitakoak, Frantziak Indotxinan eta gero Aljerian antolatutako talde paramilitar natiboak, eta abar luzea. Beranduago, Peruko Gobernuak usu erabili zituen horrelako miliziak Sendero Luminosori aurre egiteko. Kurdistango *korucu*ak, aldiz, ezezagunagoak ziren gure artean.

PKKren kontra borroka zikina egiten zuten paramilitarren arteko buruetako bat, Sedat Bucak, aberastu zen trukean obra publikoetan Ankarako agintariekin eman zizkionten laguntzei esker. Konplizitate hauek argitara atera ziren Susurluk herrian gertatutako istripuari esker.

1996ko azaroaren 3an gertatutako auto istripu batekin egin zuen

famatu Susurluk. Ondorengo epaiketan mahairatuko zen planifikatutako hilketak izan zela. Auto barruan talde bitxia zihoan: Abdullah Catli ultra-eskuindarra poliziak hilketak eta droga trafikoagatik bilatzen zuena; honen neska laguna Gonca Us, edertasun lehiaketetarik ezaguna; eta Huseyin Kocadag Istanbulen polizia-buru izana. Kotxeko lau garren eskifaia bizirik atera zen: Sedat Bucak enpresaburu eta parlamentari kurdu kolaborazionista. Laurak zetozen inguruko hotel batean Mehmet Agar barne ministroarekin bilera egitetik. Hau salbatu zen beste mafioso batekin abisua eman ziolako.

Kurduen kontrako gerra egiteko eta Turkiako aferak gobernatzeko ikuspegi ezberdinak zeuzkaten agintarien artean ere izan ziren gudu zikinak 1990eko hamarkadan. BGNNews albistegia turkiarrak zabaltu duenez, armadako buru zen Dogan Güres bera hiltzen saiatu ziren kafean zianuroa jarrita. Beste militar batekin eragotzi omen zion kafe hura hartzea, bereziki garrantza omen zegoela eta.


1992an Güresek aitortu zuen Turkia estatu militar bat zela. Emakumezko bat zen orduan lehen ministro, Tansu Ciller. 1994an armadatik erretiraturik, Cillerrek konbidatuta 1995ean diputatu bihurtu zen Dogan Güres.

BGNNewsek albistearen tituluari ipini bezala, Dogan Güres hil da berekin eramanez bere sekretuak. Zeina esatea baita, OTANen barruko estatu batekin egindako gerra zikinarenak. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Salbatu Espainia

USTELKERIA islatzen du egun Espainiak. Ez du merezi dozenaka auzien aipatzeak, baina bai joan den igandeko *Público* agerkari digitalak nola islatzen zuen irudi hau bere titulu nagusian: “Ustelkeria gero eta azkarrago hazten ari da: 130 auzi, 1.900 auziperatu eta 170 zigortu”. Zigortu horiek azken legealdikoak dira, bestela askoz gehiago lirateke. Horietako gehienak aske dira, kartzela zigorrak ez zuelako espetxeratzea eskatzen, tartean helegiteak direlako edo beste hainbat arrazoiengatik.

Enric Duran aktibista katalanak ez zuen halako zortetik izan, baina honek bestelako etsaia aukeratu zuen, eta bestelako arrazoiekin. 2008an iragarri zuen artikulu baten bidez: “492.000 euro lapurtu diet gehien lapurtzen digutenei [bankuei], haien jarduna salatzeke eta gizarte alternatibak eraikitzeke”. Bi hilabete pasatu zituen preso hainbat bankuri eskatutako maileguak ez itzultzeagatik. Fiskaltzak 8 urteko kartzela zigorra eskatzen zuen harentzat. Ihesi da egun.

Caja Madrideko txartel ilunen kontura 15 milioi euro xahutu zituzten kutxako hainbat agintari eta aholkularik, egun argiz eta inpunitate osoz. Eta *Púnica* operazioaz oraingoz dakigunagatik, 250 milioi euroko kontratuetan ustez %2-3ko komisioak eraman dituzte dozenaka auzipetuk. Zenbat urte pasatuko dituzte espetxean?

Ez dakigu, baina badakigu Urtzi Martinez eta Jon Telletxeak, oraintsu Deustun atxilotutako bi gazteek zenbat pasatuko duten: bi urte eta erdiko espetxe zigorra jaso zuten, Bilboko auzitegian pinitaketak egiteagatik.

Tartalariei ere bi urteko zigorra berretsi die Espainiako Auzitegi

Nazionalak, Yolanda Barcinari aurpegira tartak botatzeagatik. Nafarroako beste dozenaka pertsonari 1.000tik 8.000 euro arteko isunak iristen ari zaizkie ekitaldi publikoetan parte hartzeagatik. Bekatua, Nafarroako Gobernu ordezkartzaren esanetan, baimendu gabeko bilkuretan parte hartzea. Konparaketak gorrotagarriak direla esaten da, baina kasu hauek guztiz argigarriak dira. Horiek Euskal Herriko kasuak dira, baina Espainian ere dozenaka dira estatuaren errepresioak gogor kolpatutako herritarrak. “Sumindu zaitetze” zioen Stephane Hesselek eta espainiarrak sumindu dira.

Joera hor dago eta Podemos oso indar garrantzitsua izango da hurrengo hauteskundeetan

PODEMOS-EKIN sumindu dira batez ere Espainian. Alderdi berriak Europako hauteskundeetan botoen %8 lortu zuen eta bost eurodiputatu. Orain inkestek lehen aldiz lehen postua ematen diote Espainiako 2015eko orokorretrako (botoen %27,7), PSOE-ren (%26,2) eta PPre (%20,7) aurretik. Beldurra barreiatu da sisteman. Ilusioa bestelako politikak nahi dituzten herritarren artean.

Inkosten zehaztasun eta erabilieratik harago, joera hor dago eta Podemos oso indar garrantzitsua izango da hurrengo hauteskundeetan. Eta bakarrik horrekin gauza askok hasi beharko luke aldatzen apurka. Baina galdera nagusiak airean jarraitzen du: zer da Podemos? El Diario.es agerkari

digitaleko Guillermo Lopezek hala azaltzen digu: “Zapore populadun neurriak eskaintzen dizkigu (oinarrizko errenta, jubilazioa 60 urterekin), akaso gauza ezinak. Edozeren gainetik, ordea, orain daudenak kanporatzea eskaintzen du. Eta hori bai dela popularra: izan ere, hori da bere boto emaleen gehiengo handiak ematen dion egiazko abiatze-motorea”.

Zer den Podemos? Ikusiko dugu, baina badaezpa gerra Pablo Iglesiasi. *Antena 3* telebista kateak argi du. Horregatik narras manipulatu zuen La Sexta telebista kateko *Salvados* saioan Jordi Évole kazetariak egindako elkarrizketa saioa, esanez Pablo Iglesias guber-nuko lehendakaria balitz, honek TVEn bere saioa nahiko lukeela, Venezuelen Hugo Chavezek zuen *Alo Presidente*-ren modukoa. Egiazkoa nola izan zen? Galdera bai, ea halako saioa bat izango lukeen. Pablo Iglesiasen erantzuna ezin garbiagoa. “Ez inondik inora”. Interne-teko bideoa arras argia da.


Ezkerretik ere egiten zaio kritika Podemosi, ez duela programa ezkertiarra... Baina ulerkor, Pedro Pascualek *Rebelión*en azaltzen duen moduan: “Podemosen helburua ez baita hauteskundeak irabaztea, hegemonia lortzea baizik, ondoren prozesu konstituziogilea abiarazteko”. Behingoz norabidea aldatzeko eta, 1978an egin zen kontrara, Espainia guztiz aldatzeko.

Eta gainera Katalunia badoa. Sistema eskaera batekin dator Espainian gero eta indar handiagoz: “PP-PSOE, egin ezazue koalizioa eta salbatu Espainia”. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

3



Jexuxmai Lopetegi errekan gora

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2434. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Begoña Azpeitia Begiristain (Alegia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Jabier Alzorritz Lardies (Bilbo)
- Juan Jabier Iturralde Maisterra (Iruñea)
- Mayi Iza Agirre (Hodarribia)
- Juan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)

OKATXU KOMIKIA

- Maider Irizar Kortabarria (Gasteiz)

EKAINBERRI

- Joxe Aizpurua Iruin (Hernani)
- Martin I. Barriola Elorza (Donostia)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)

EMON

- Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Auro Anzorregi Altzibar (Mutriku)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
- Malentxo Arrospide Arrate (Lizartza)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



“zoragarria”
LA RAZÓN

“egundokoa”
DEIA

“bikaina”
BERRIA

“urregorria”
FOTOGRAMAS

“berebizikoa”
EL MUNDO

“apartekoa”
ARGIA



SAIL OFIZIALA



62

DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL



LOREAK

IRUSOIN ETA MORIARTI REN EKOIZPEN BAT ETB, TVE ETA EUSKALTELEN PARTAIDETZAREKIN EUSKO JAURLARITZA ETA ICAAREN LAGUNTZAREKIN
ITZIAR ITUÑO - NAGORE ARANBURU - ITZIAR AIZPURU - JOSEAN BENGOTXEA

ARGAZKIA JAVI AGIRRE ERAUSO JATORRIZKO MUSIKA PASCAL GAIGNE MUNTATIA RAÚL LÓPEZ ZUZENEKO SOINUA INAKI DIEZ SOINU DISEINUA ETA MUNTATIA XANTI SALVADOR
ZUZENDARI ARTISTIKOA MIKEL SERRANO JANTZIAR SAIOA LARA MAKILLAJEA AINHOA ESKISABEL ILE-APAINKETEA OLGA CRUZ ZUZENDARI-LAGUNTZAILEA TELMO ESNAL
EKOIZPEN ZUZENDARIA ANDER SISTIAGA EKOIZLEAK XABIER BERZOSA - INIGO OBESO - INAKI GOMEZ EKOIZLE ERAGILEAK AITOR ARREGI - FERNANDO LARRONDO

GIDOKIA JOSE MARI GOENAGA - JON GARAÑO - AITOR ARREGI
ZUZENDARITZA JON GARAÑO - JOSE MARI GOENAGA



@loreakfilm



<https://www.facebook.com/loreak>

www.loreakfilm.com

@IRUSOIN

MORIARTI



tve

euskaltel



a contracorriente films